

Euskararen familia bidezko jarraipena gaia bost atal nagusitan lantzen da artikulu honetan. Lehendabizikoan hizkuntzaren familia bidezko jarraipenak duen garrantzia deskribatzen ahalegintzen naiz. Horretarako kontzeptu hau (hizkuntzaren familia bidezko jarraipena) hizkuntz normalizazioarekin, hizkuntz plangintzarekin eta hizkuntz politikarekin gurutzatzen dut. Bigarren atalean hizkuntzaren familia bidezko jarraipena nola ematen den azaltzen da. Horretarako haur baten eta heldu baten errealitatea (eta hizkuntz errealitatea) deskribatzen dira, beren egunerokotasuna zein esparruk osatzen duten aztertuz. Hirugarren atal batean euskararen familia bidezko jarraipena zertan den azaltzen da. Bai ikuspegi historiko batetik izan duen garrantzia azpimarratuz, bai azken urteetan eginiko ikerketetan jasotako datuekin egungo egoera zehaztuz. Lauugarren atalean euskararen familia bidezko jarraipena sustatzeko azken urteetan hainbat udaletan burutu den esperientzia papereratzen da. Esperientzia hori «Transmisio kanpainak» modura ezagutzen den egitasmoa da. Kanpaina horietan eginiko planteamendua, ezarritako helburuak, lehentasunak, buruturiko sentsibilizazio-lanak eta euskara-eskolak deskribatzen dira lehenik, eginikoa baloratzen da bigarrenik eta ondorio batzuk ateratzen ahalegintzen naiz azkenik. Azken atalean euskararen familia bidezko jarraipena eta etorkizuna gurutzatzen saiatzen naiz, zer eta nola egin beharko litzatekeen proposatuz eta adibideren batez hornituz.

EUSKARAREN FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA

Iñaki Arruti Landa
Lasarteko udal teknikaria

1. SARRERA

Txosten honen helburua euskararen jarraipena hobetzeko lagungarri izatea da.

Eusko Jaurlaritzak argitaratu berri duen *Euskararen Jarraipena* liburuan zehazten denez, euskararen erabileran gehien eragiten duten faktore nagusiak honako hauek dira: norberaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatea, norberak euskaraz eta erdaraz hitz egiteko duen erraztasuna (elebitasun-mota), gune soziolinguistikoa, euskararekiko interesa eta jarrera, eta euskarazko irratia eta telebistaren emanaldiak entzutea edota ikustea, hurrenkera honetan.

Faktore horien artean, batzuk egiturazkoak dira (harreman-sareak eta gune soziolinguistikoa adibidez) eta beste batzuk pertsona-mailakoak dira (elebitasun-mota eta jarrera adibidez).

Euskararen jarraipena hobetzeko, guztietan eragin beharra dago.

Eragiteko, ordea, non eragin?, nola eragin? eta antzeko galderei erantzun behar zaie. Txosten honek argibideren bat eskaini nahi du galdera horiei erantzuteko orduan.

Lehenagotik eginiko zenbait lan josi eta horiek osatzeko beste zenbait sortze-lan jasotzen dituen txosten honek, euskararen erabileran gehien eragiten duen pertsona-mailako faktorea, elebitasun-mota, hobetzeko bideen azterketan jarri ditu bere indarrak.

Elebitasun-motaren baldintzatzaile nagusia ama-hizkuntza da eta, hortaz, ama-hizkuntza ziurtatzaile euskararen familia bidezko jarraipena ziurtatzea eskatzen

du.

Euskararen familia bidezko jarraipenak, beraz, lehenetasuna du euskararen erabileraren berreskuratze-prozesuan, bai hiztun-galera eteteko (Iparraldean bereziki), bai hiztun-irabazia finkatzeko (EAEn batez ere).

Euskal elebarririk apenas geratzen den momentu honetan, euskararen erabilera elebidunen esku geratzen da. Elebidun, euskara ama-hizkuntza izanik edo eskola bidez ikasita izan daiteke.

Euskal elebidun izateko, ordea, ia kasu guztietan euskara ama-hizkuntzatzat ere eduki behar denez, ama-hizkuntza euskara izan ez eta eskola bidez elebiduntzen ari den belaunaldi berriak euskara hurrengo belaunaldira transmititu ezean (belaunaldi berriaren ama-hizkuntza bihurtuz), euskal elebidun berririk sortu ezinean (eskolak bakarrik ez ditu sortuko) eta, beraz, euskararen erabilera jaso ezinik ibiliko gara denbora luzez.

Ezin pentsa daiteke, ordea, belaunaldi berrietako elebidun guztiek, besterik gabe, euskara hurrengo belaunaldira transmitituko dutenik. Hori horrela gerta dadin, lan eskergera geratzen zaio euskal gizarteari, oro har, eta euskararen normalizazio-lanak bideratzeko ardura dutenei, bereziki.

2. HIZKUNTZAREN FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENAREN GARRANTZIA

2.1 HIZKUNTZ NORMALIZAZIOA ETA HIZKUNTZAREN FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA

Euskararen normalizazioa, euskararen **erabileraren** normalizazioa da. Laburki esanda, euskara demografikoki, funtzionalki eta geografikoki normalizatzea esan nahi du.

Hau da, Euskal Herriko biztanle guztiek ezagutzea eta erabiltzea (hedapen demografikoa), funtzio edo esparru (Administrazioa, familia, irakaskuntza, sozioekonomia...) guztietan erabiltzea (hedapen funtzionala) eta euskararen herri guztietan (Euskal Herri osoan: hedapen geografikoa) erabiltzea esan nahi du.

Txosten honek, beraz, hizkuntzaren **hedapen funtzionalean** (famili funtzioari dagokiona) du bere abiapuntuko ikuspegia (izenburuak zehazturikoari jarraiki), nahiz eta hedapen demografikoa (belaunaldi berrietako pertsonak) eta geografikoa (ahalik eta herri gehienei dagokienean) ere izan bere ondorioetan.

2.2 HIZKUNTZ PLANGINTZA ETA HIZKUNTZAREN FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA


Hizkuntz normalizazioa, ordea, ezin da egun batetik bestera lortu. Helburuak epekatu egin behar dira, lehenetasunak ezarri, egitasmoak prestatu, bitartekoak jarri... Honi hizkuntz plangintza deitzen zaio.

Hedapen funtzionalari dagokionez, hizkuntz plangintzak nondik nora joan behar duen azaltzeko eredu desberdinak daude. Hala ere, eredu guztietan familia giltzarri bihurtzen da aipatu normalizazioa lortzeko.

Jose Maria Sánchez Carriónnek, «Txepetxek», adibidez, hizkuntzaren zazpi funtzio bereizten ditu.

«Ama-hizkuntza
ziurtatzeak euskararen
familia bidezko
jarraipena ziurtatzea
eskatzen du»

«Euskararen familia bidezko jarraipenak, beraz, lehentasuna du euskararen erabileraren berreskuratze-prozesuan»



Eredu honen arabera, hizkuntz komunitate baten normalizazio-prozesua burutzeko, hizkuntzak identitate-funtzioa (pertsonearen pentsamendu-hizkuntza) eta funtzio nazionala (nazioaren hizkuntza) bete behar ditu. Identitate-funtzioa famili funtzioak biltzen du, azken hau funtzio laboralak, aurreko hirurak funtzio lokalak, eta funtzio lokal guztiak funtzio nazionalak. Beraz, familiak (funtzio familiarak) oinarri-oinarrizko kokapena du aipatu normalizazio-prozesuan.

J. Fishmanek, ondoren azaltzen den bere erudian ere («Reversing Language Shift»), familiari aparteko garrantzia ematen dio hizkuntza batek egoera diglosikora iristeko lehendabizi eta normalizazio-prozesua bere osotasunean lortzeko bigarrenik:

Hizkuntza biziberritzeko saioak: 8 urrats belaunehi belauneko eskolatzeko-maila

(Behetik gora irakurri)

- 1.- Hezkuntza, lan-eremua, komunikabideak eta gobernu-ekintzak mailarik gorenean.
- 2.- Herri mailako zerbitzu publikoak, gobernu-zerbitzuak eta komunikabideak
- 3.- Herri/eskualde-mailako lan-mundua.
- 4.- Irakaskuntza

II. Diglosia gainditzeko hizkuntza biziberritzeko saioak, diglosia hori lortu ondoren.

5.- Hizkuntzaren alfabetatze eskolak, gazte eta zaharrentzat.

6.- **ETXEGIROA, AUZO-INGURUA ETA BIZI-ESPARRU AMANKOMUNAK (GERTUKO KOMUNITATEA): AMA-HIZKUNTZAREN ETA TRANSMISIOAREN OINARRIA.**

7.- Elkarreragite kulturala bertako hizkuntzaren bidez, pertsona zahar eta helduen partehartzea azpimarratuz.

8.- Bertako hizkuntzaren berreraikuntza.

I. Diglosia lortzeko hizkuntza biziberritzeko saioak.

Eredu honen arabera ere, hizkuntza biziberritzeko saioen artean, 6. urrats hau da urratsik erabakigarriena eta erabateko lehentasuna duena. Bereziki euskararen kasuan lehentasuna nabarmenagoa da aurreko bi urratsak lortuak egon daitezkeen neurrian. Fishmanen arabera, hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena hizkuntza horretan sozializatzearekin loturik dago, eta hori gertuko komunitate horretan (familian, auzo-giroan...) bideratzen da. Urrats hau ziurtatu ezean, ahalegin guztiak hutsalak izan daitezke.

Beste eredu batzuk aztertuko bagenu ere, familiak kokapen zentrala (familia bidezko hizkuntzaren jarraipena ziurtatu bitartean behintzat) izango luke egoera minorizatuan dagoen hizkuntzaren normalizazio-prozesuan.

2.3 HIZKUNTZ POLITIKA ETA HIZKUNTZAREN FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA

Hizkuntz normalizazioak helburuaren definizioa ematen digu, hizkuntz plangintzak helburu hori nola lortu azaltzen digu eta hizkuntz politikak helburu hori modu horretara lortzeko ahaleginak antolatzen ditu.

Beraz, hizkuntz politikaren egiteko nagusia hizkuntz normalizazioa eta hizkuntz plangintza ahalik eta koherentzia handienarekin uztartzea da. Hau da, helburua eta berau lortzeko egin beharrekoa egikaritzea, administratzea.

Hizkuntza normalizatu guztiak familia bidezko jarraipena normalizatua badute eta hizkuntz plangintza gehienek hizkuntza minorizatuak normalizatzeko oinarritzko urratsa dela adierazten badute, oinarritzkoa dirudi hizkuntz politika koherenteak bere eginahalen zentruan familia bidezko jarraipena izatea.

3. EUSKARAREN FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENAREN EGOERA

3.1 IKUSPEGI HISTORIKOA

Mendeetan zehar euskarak izan duen erreproduktzio-mekanismorik onena, leialena, euskararen familia bidezko jarraipena izan da.

Hala ere, euskarak ordezkatzeko-prozesu nabarmena pairatu du azken mendeetan eta ordezkatzeko horrek (normalizazioak bezalaxe) bere alderdi demografikoa, geografikoa eta funtzionala ditu.

José María Sánchez Carrión (Txepetek) dioen gisara, ordezkatzeko-prozesuaren abiapuntua defizit funtzionala (erabilera-esparruen galera) izan ohi da, honek defizit demografikoa (hiztunen galera) ekarri ohi du eta azken honek ondorioztat hizkuntzak lurraldea ere galtzea dakar (etxeak, auzoak, herriak...).

Defizit funtzionalaren hasiera, berriz, gehienetan funtzio jasoenetik hasi ohi da (administrazioa, sozioekonomia...), tarteko funtzio oso garrantzitsuekin jarraitu (irakaskuntza...) eta familiarekin amaitu ohi da. Familia bidezko jarraipena eteten denean (lehenago ere bai) hizkuntzak hiztunak sortzeko duen berezko mekanismoa galdu egiten du (defizit demografikoa...).

Hizkuntzaren familia bidezko jarraipena, beraz, hizkuntzaren azken gotorleku funtzionala da, honela adieraz badaiteke behintzat.

Ordezkatzeko-prozesuaren urrats hauek eta beren hurrenkera oso ezagunak egiten zaizkigu euskararen kasuan. Euskara ere funtzioak galtzen joan da (kentzen joan zaizkio) eta familia bidezko jarraipena ere higatuz joan da (modu desberdinean

«Ezin pentsa daiteke, ordea, belaunaldi berrietako elebidun guztiak, besterik gabe, euskara hurrengo belaunaldira transmitituko dutenik. Hori horrela gerta dadin, lan eskergera geratzen zaio euskal gizarteari, oro har, eta euskararen normalizazio-lanak bideratzeko ardura dutenei, bereziki»

«Euskararen normalizazioa, euskararen erabileraren normalizazioa da. Hau da, Euskal Herriko biztanle guztiek ezagutzea eta erabiltzea (hedapen demografikoa), funtzio edo esparru (Administrazioa, familia, irakaskuntza, sozioekonomia...) guztietan erabiltzea (hedapen funtzionala) eta euskararen herri guztietan (Euskal Herri osoan: hedapen geografikoa) erabiltzea esan nahi du»

garai eta leku desberdinetan).

Mende honi bagatxezkie, euskararen familia bidezko jarraipenak izan duen higadura hori begi-bistakoa bada ere, ezaguna da euskarak mende honetan izan dituen urterik zailenetan (Hego Euskal Herrian) familian euskaraz hitz egiteak izan duen garrantzi agian erabakigarria. Hala ere, orain dela gutxi arte ez dugu izan gorabehera horiek zehaztu, zenbatu eta irakurriko zituen azterketarik.

3.2 FAMILIA BIDEZKO HIZKUNTZ TRANSMISIOAREN AZTERKETA

1994. urtean, ordea, SIADECO Ikerketa Elkarrekin, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren (HPIN) eskaerari erantzunez, atal honek duen izenburuak jasotzen duen lana burutu zuen.

Azterketa honetan bi izan dira jorratutako unibertsoak:

- Euskal Herri osoan zehar, 1978-91 bitartean, leku desberdinetan egindako azterketa soziolinguistikoetan elkarriketatuak izan diren 16 urtetik gorako pertsonen osatzen dutena. Bi dira datu hauen iturriak: batetik, Siadecok udalerriko edo eskualdeko egindako azterketak, bertako udalak edo eskualdeak eskatuta, eta bestetik, HPINk 1991n Euskal Herri osoan egindako azterketa soziolinguistikoa.
- Euskal Autonomi Elkartearen (EAE) 1991. urtean egin zen Biztanleen Erroldan 2-29 urte izan eta bere gurasoekin bizi ziren seme-alabek osatzen zutena.

Bi unibertso hauek, bi multzo desberdin bezala agertzen bazaizkigu ere, badute elkarrekin lotzen dituen adin-talde bat, 16-29 urtekoena, hain zuzen ere. Lehen-bizikoan 16tik gorako guztiak inolako urte-mugarik gabe sartzen diren bitartean, bigarrenean 2-29 urteko seme-alabak bakarrik hartu dira kontutan. Horregatik badute adin bereko jenderik (1991. urtean 16 urtetik 29ra dituztenak).

Aztertu diren bi unibertsoen arteko datuen konparaketatik, SIADECO Ikerketa Taldeak ateratzen dituen ondorio nagusiak honako hauek dira:

- Azken 20 urteotan familia bidez egiten den hizkuntz transmisioak hobekuntza nabarmena izan du familia euskaldunetan. Lehengo hutsuneak azken urteotan asko hobetu dira.

Hori horrela izan da bi gurasoak euskaldunak diren kasutan (%70etik %92ra igo da).

Guraso euskaldunen transmisioa (%)

Amak: ongi - Aitak: ongi

Seme-alabak	HPIN+Siadeco	1991ko Zentsua
Ongi	70.0	92.8
Zerbait	22.0	5.9
Ezer ez	8.0	1.3
Guztira	100.0	100.0

- A unibertsoko datuetan (Siadeco+HPIN), euskararen transmisioak jasan duen higadura edo erosio nabarmena ikus daiteke: bi gurasoak euskaraz ongi hitz egiten dakiten kasuetatik ia hirutik batean ez diete beren ezagupen-maila beren seme-alabei transmititu. Hori, 1991n 16 urtetik gora zituztenen artean gertatu da.

Berreskurapen hori nabariago geratzen da hizkuntzaren jarraipena adin-taldeka aztertuz gero.

**Ongi dakiten gurasoen eta seme-alaben arteko transmisioa,
adin-taldeka**
(HPIN+SIADECOren proportzioak)

Inkest.	Amak ongi				Aitak ongi	
	16-21	22-31	32-51	52-72	73<	Guztira
Ongi	78,9	67,7	67,9	70,0	73,0	70,0
Zerbait	15,8	25,2	23,8	20,8	20,3	22,0
Ezer ez	5,3	7,1	8,3	9,2	6,7	8,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Taulan ikus daitekeenez, 22-72 urte bitarteko seme-alabak dira familia bidezko transmisioa gaizkien jaso dutenak. Bereziki, gerra ondorenean eta frankismoaren garaian eskolatua izandako jendea da transmisioa okerreren jaso duena. Familietan ezetik kaleko giroan ere euskarari lekurik egiten ez zitzaion garaietan bizi izandakoak, alegia.

Bestalde, datu hauek zera adierazten digute: garai txarragoak igaro ditugula eta belaunaldi berrietan ez dela gertatzen, lehen adina, guraso euskaldunek beren seme-alabei euskararik ez irakastea.

Ildo beretik jarraituz, lehen unibertsoan egin den hiru belaunaldien azterketak garbi erakusten du inkestatuen aiton-amonek euskara beren seme-alabei (inkestatuen gurasoei) hobeki transmititu zietela hauek beren seme-alabei (inkestatuei) baino.

Jakina da, lehen unibertsoan inkestatuak izan direnak, 16 urtetik gorakoak eta gehienbat 30 urtetik gorakoak zirenez, 1991ko Zentsuan agertzen diren pertsonen gurasoak direla, eta belaunaldi horixe dela, hain zuzen, transmisioa gaizkien jaso duena. Belaunaldi horren alde esan beharra dago, hala ere, agian bere baitan galtzeko arriskuan ikusi duena berreskuratzearren, bera izan dela seme-alabei euskara transmititzen gehien ahalegindu dena ere.

**Ongi dakiten gurasoen eta seme-alaben arteko transmisioa,
adin-taldeka**
(1991ko Zentsuko proportzioak)
Amak: ongi - Aitak: ongi

Seme-alabak	2-11	12-15	16-21	22-29	2-29 guztira
Ongi	89,6	97,5	95,0	91,0	92,8
Zerbait	9,3	2,0	3,8	6,6	5,9
Ezer ez	1,1	0,5	1,2	2,4	1,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

«J. Fishmanek familiari aparteko garrantzia ematen dio hizkuntza batek egoera diglosikora iristeko lehendabizi eta normalizazio-prozesua bere osotasunean lortzeko bigarrenik»

«Fishmanen arabera, hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena hizkuntza horretan sozializatzearekin loturik dago, eta hori gertuko komunitate horretan (familian, auzo-giroan...) bideratzen da»

- B unibertsoko datuek erakusten dutenez (1991ko Zentsukoak), 2-29 urte bitarteko haur eta gazteen artean, batez ere 22 urte bitartekoetan, transmisio-prozesua berreskuratze bidean jartzen dela esan daiteke, guraso euskaldunak dituztenen artean euskara ongi jaso dutenen batezbesteko proportzioa %92koa baita.
- Bi unibertsoen datuak elkarrekin konparatuz gero, aldirik txarrenea 1920tik 1970era bitartekoa izan dela ikusten da. Urte horietan jaiotakoek, tarteko salbuespen labur batean izan ezik, bizi izan zituzten baldintzarik okerrenak. Guraso euskaldunak dituztenen artean, transmisioaren emaitzarik onenak azken 20-25 urteetan jaiotakoek artean aurkitzen badira ere, baieztapen hau are gehiago sendotzen da bi unibertsoetako 16-21 urteko gazteen azpimultzoa aztertzen denean eta berari dagozkion datuak belaunaldi zaharragoetakoak baino altuagoak direla ikusten denean.
- Guraso euskaldun bakarra duten seme-alaben artean ere, azken urteotan jaiotakoek transmisioaren emaitzak belaunaldi zaharragoetan aurkitzen ditugunak baino askoz hobekak dira. Horrela, lehen unibertsoan (16 urtetik gorako seme-alabak), euskalduna ama denean ongi jaso dutenen proportzioa %17koa eta euskalduna aita denean %12koa izatetik, %68 eta %58koa izateraino igo da bigarren unibertsoa osatzen duten seme-alaben artean (2-29 urte bitartekoak).

3.3. ERAGINA IZAN DUTEN FAKTOREAK

SIADCO Ikerketa Taldeak emaitza hauen eragile nagusiak zeintzuk izan diren zehazteko orduan, hauek dira egiten dituen oinarrizko kontsiderazioak:

Datu hauen zergatikoa aztertzerakoan ezin da ahantzi euskal gizartean azken urteotan euskara eta euskaraz ikasteko sortu den giroak familia euskaldunengan euskararen transmisioa ziurtatzeko izan duen eragina.

Badira, ordea, emaitza horien bilakaeran zerikusia izan duten faktore berezi batzuk. Faktore nagusiak honako hauek dira:

a) Gurasoen euskararen ezagupen-maila

Transmisio-prozesuaren emaitzak aztertzerakoan, gurasoen euskararen ezagupen-maila edo tipologia, oinarrizko faktore eta abiapuntu gisa agertzen da. Gauza jakina da: gurasoek ez badakite ezin dute transmititu; eta zenbat eta hobeto jakin, orduan eta hobeto transmititzen dute.

Euskaraz ongi dakiena gurasoetako bat denean, transmisioak neurri nabarmen batean huts egiten du. Bestalde, transmisioak hobeto funtzionatu du amaren bidez egin denean (%17) aitaren bidez egin denean baino (%11,7).

Hala ere, esan behar da, beste aldagaiak aldatzen direnean, gurasoen ezagupen-maila edo tipologia berbera izan arren, transmisio-prozesuaren funtzionamendua aldatu egiten dela.

Horregatik, esan beharke genuke, gurasoen ezagupena ezinbesteko baldintza bada ere, ez dela bakarra eta, agian, ezta indar edo eragin handiena azaltzen duena ere.

Izan ere, ezagupen-maila edo tipologia bera agertzen duten gurasoek ez diete neurri berean transmititzen euskara beren seme-alabei, ez adin-talde edo belaunaldi desberdinetan ez eta zonalde soziolinguistiko desberdinetan ere.

b) Seme-alaben adina / Belaunaldia / Aro soziopolitikoak

Familia bidez egiten den hizkuntz transmisioaren azterketak garbi azaldu du, azterturiko bi unibertsoetan, oso loturik aurkitzen direla seme-alaben adina, belaunaldiak eta aro soziopolitikoak. Garbi ikusten da diferentzia horiek aro soziopolitiko bakoitzean egon den giroarekin oso loturik aurkitzen direla: euskara ikasteko eta erabiltzeko garaian egon diren baldintzek eta giro soziopolitikoak, izan dute eragin nabarmenik.

Lehen unibertso kasu guztietan ikusten da 32-72 urtekoek (1920-60 bitartean jaiotakoak) azaltzen dituztela familia bidez egiten den hizkuntz transmisioaren emaitzarik kaskarrenak (%67tik %70era bitartean).

Bestalde, bigarren unibertso kasu 2-29 urte bitarteko gazteek, lehen unibertso kasu 16-21 urtekoak barne, emaitza hobekien ematen dituzte (%92,7 eta %78,9). Antzeko zerbait gertatzen da 73 urtetik gorako belaunaldiekin ere, hau da, hizkuntz transmisioari dagokionean, helduen emaitzak baino hobekien (%73,0) direla.

Garbi dago, beraz, Primo de Riveraren diktaduraren garaitik hasi eta, II. Errepublikako parentesia igaro ondoren, frankismoaren garaian sortu zirenak euskararen transmisioa ziurtatzeko baldintza txarrenean bizi izan zirela.

c) Zonalde soziolinguistikoak

Familia bidez egiten den hizkuntz transmisioan eragina duten faktoreen artean, orain arte aipaturikoak baino eragin handiagoa agertzen du zonalde soziolinguistikoaren aldagaiak.

Izan ere, esan gabe doa, euskara ongi ezagutzen duen guraso-bikote batek bere seme-alabei euskara irakasterakoan zer nolako aldea aurkitzen duen euskara nagusi den zonalde batean bizitzeak edota erdara nagusi den zonalde batean bizitzeak.

Aldagai honen ikuspegitik bi unibertsoetako datuak aztertu ditugunean, garbi azaldu dira bien artean dauden aldeak:

**Guraso euskaldunak dituztenen artean,
euskara ongi jaso dutenak (%)**

A Unibertsoa (HPIN+SIADCO)		B Unibertsoa (1991ko Zentsua)	
Euskaldunen %	Transmisioaren %	Euskaldunen %	Transmisioaren %
80≤	89,5	80≤	96,6
45-79	61,7	20-79	93,0
20-44	36,5	8-19	78,9
20>	11,6	8>	67,1

Zonalde soziolinguistikoaren eragina nabarmena da batez ere A unibertso kasu datuetan, ez hainbeste B unibertso kasu datuetan. Kontutan izan behar da bi unibertso kasu hauek desberdinak direla bai lurraldez eta baita aztertzen diren belaunaldiekin dagokienez ere. Horregatik, datu hauek irakurtzerakoan, arreta handiz ibili behar da:

«Hizkuntz normalizazioak helburuaren definizioa ematen digu, hizkuntz plangintzak helburu hori nola lortu azaltzen digu eta hizkuntz politikak helburu hori modu horretara lortzeko ahaleginak antolatzen ditu»

«Mendeetan zehar
euskarak izan duen
erreprodukzio-
mekanismo onena,
leialena, euskararen
familia bidezko
jarraipena izan da»

- A unibertsoan, Euskal Herriko herrialde guztietako 16 urtetik gorako jendea denez, belaunaldi eta aro soziopolitiko desberdinetakoak ezezik historia guztiz desberdinak bizi izan dituztenak ere badaude (EAEko lurraldeak, Nafarroa, Iparraldea).
- B unibertsoan, EAEko herrialdeetan azken 30 urtetan sortu eta beren gurasoe-kin bizi diren seme-alabak agertzen dira.

Lehen unibertsoa, beraz, bigarrena baino azkoz heterogenoagoa da eta bertan azaltzen diren datuak ezin dira, besterik gabe, bigarren unibertsoko datuekin konparatu, bi errealitate nahikoa desberdinak baitira. Lurralde eta aro bakoitzean bizi izan dituzten baldintzak nahikoa desberdinak izan diren bezala.

Bigarren unibertsoa askoz homogenoagoa da, ez bakarrik adinari dagokionean, baizik eta lurraldearen mugei eta batez ere urte horietan EAEko lurraldean eman diren baldintzei dagokienean, hau da, irakaskuntzan euskarak izan duen sarbideagatik (ikastoletan lehenik eta beste eskoletan geroago) eta gazte eta helduen euskalduntze-alfabetatze prozesuak belaunaldi horietan izan duen eraginagatik.

3.4. ONDORIOAK

Ondorio nagusi bezala, honako hauek aipatzen ditu SIADECO Ikerketa Taldeak:

- Azken 20-30 urteotan, familia bidez egiten den transmisioaren baitan, inflexio-puntu bat gertatu da. Aurreko belaunaldietan nabari zen higadura edo erosioa gutxitu egin da azken urteotan eta euskaldun gurasoek beren seme-alabei lehen baino proportzio altuagoan transmititzen diete euskara. Orain ere gertatzen dira galerak, baina ez lehengoen parekoak.
- Familiaren baitan, euskararen transmisioari dagokionean, eman den aldaketa honetan, familiaz kanpoko baldintzek familia barnekoek baino zerikusit handiagoa izan dutela dirudi. Horrek adierazten du, orain arte euskararen transmisioa prozesu natural baten bidez gauzatu baldin bada, orain, eta hemendik aurrera gehiago, prozesu kultural baten bidez gauzatzen hasi dela. Hala ere, horrek ez du esan nahi familia barnekoak, hau da, bi gurasoen euskararen ezagupen-mailak, hizkuntz kontzientziak eta familiaren barnean dagoen euskaldunen kopuru eta dentsitateak, adibidez, zerikusirik izan ez dutenik, jakina baita eragina badutela, eta handia gainera. Garrantzi handiagoa hasi dira hartzen, ordea, familiaz kanpoko faktoreak, hala nola, haurren eta helduen euskararen irakaskuntza, komunikabide sozialak, Administrazio publikoak eta abar. Horiek izan dira familietako gurasoak ere euskararen ezagupenari eta, ondorioz, hizkuntzaren transmisioari garrantzia ematera bultzatu dituztenak. Garai batean kanpoko faktoreek, batez ere giro soziopolitikoak, euskararen transmisioaren kaltetan jokatzen zuten bezala, orain alde jokatzen hasi dira.
- Esan gabe doa, bestalde, elementu hauek guztiek sortu duten giroak familietan izan duen eragina ez dela maila berekoa izan ez Euskal Herriko lurralde guztietan ez eta zonalde soziolinguistiko guztietan ere. Ez, hemen ere esan behar da, gauzak asko aldatzen direla toki batzuetatik besteetara eta egoera soziopolitiko batetik bestera. Horregatik, baldintza hoberenak batera gertatzen direnean (gurasoen ezagupen-maila altuena, irakaskuntzan presentziarik handiena eta zonalde euskaldunena), askoz emaitza hobek ematen dira bakar bat edo beste ematen direnean baino.

Behin eta berriz emaitzek garbi adierazten dute, hizkuntza gertaera sozial orokorra denez, gizartea osatzen duten elementu guztiek eragina dutela hizkuntzaren biziraupenean.

Horren ondorioz, neurri handi batean hizkuntza baten biziraupena gizartean hizkuntza horrekiko dagoen aldeko edo kontrako giroaren baitan dago. Giro hori onarpen sozialaren, indar politikoen jarreraren, prestigio soziokulturalaren eta beste faktore askoren eraginez gauzatzen da.

4. EUSKARAREN FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENAREN SUSTAKETA-ESPERIENTZIA ANTOLATU BAT

4.1 ESPERIENTZIA HAUEN KONTESTUALIZAZIOA

Ondoren deskribatzen diren esperientziak «Euskararen Familia bidezko Transmisio Kanpaina» izen orokorrarekin (programa bera izendatzeko izen bat baino gehiago erabili izan dira) Euskal Herriko hainbat herritan 1989-90 ikasturtetik aurrera garatu diren programa batzuk dira. Nolanahi ere, kapitulu honetan deskribatzen dena 1992-93 ikasturtera arte garatutakoari dagokio, nahiz eta gaur egun programa horrek indarrean jarraitzen duen.

Ezer baino lehen, azpimarratzekoa da programa honek ez duela eduki arduradun zuzenik, ez eta planaren jarraipen sistematikoa egiteaz arduratu den erakunderik ere. Beraz, lerro hauetan adierazitakoak, idazten duenaren gaitasun handiago edo txikiagoaz gain, beste oztopo bat dauka gainditzeko: informazio osaturik eza eta berau barreiatua egotea.

Euskararen familia bidezko transmisioa sustatzeko programa hau gauzatzea proposatzeko ideia udaletako Euskara Zerbitzuetatik sortu zen, helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko zenbait ikastegirekin batera.

Hizkuntza familia bidez transmititzeak duen begi-bistako garrantzia sumatzen bagenuen ere, transmisio horri buruzko zenbait datu (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak 1989an argitaratutako mapa soziolinguistikokoan jasoak) argitaratzeak alertatu zituen arloko hainbat teknikari programaren bat diseinatzearen garrantziaz, sumatutako gabeziak arintzeko eta hizkuntza normalizatzeko prozesuan familiak duen paperaren indartzea sustatzeko.

Lehendabiziko «Euskararen Familia bidezko Transmisio Kanpaina» diseinatu zenean (1989) ez genituen eskueran aurreko atalean deskribatutako ikerketak eta, beraz, diagnostikoak ez zeukan gaur egun duen zehaztasuna. Nolanahi ere, ezagutzen genituen jarraibide orokor batzuk, eta hauek, arlo honetan diharduten pertsonen senarekin eta lan finarekin batera, era honetako programak garatzeak duen garrantzia argudiatzen zuten, ondoren zehazten diren puntuokin:

1. Hizkuntzaren familia bidezko transmisioa da edozein hizkuntzaren berezko erreproduktzio-mekanismoa (eskola bidezko transmisioa eta/edo gizarteko erabilera ere erreproduktzio-mekanismoak diren modu berean).
2. Hizkuntza gutxiagotuen kasuan, haien familia bidezko transmisioa izan da hizkuntzaren biziraupena ahalbidetu duen erreproduktzio-mekanismo nagusia eta/edo bakarra.
3. Hizkuntza normalizatzeko prozesuan, funtzio formalak eta nazio-mailakoak irabazten joateaz gain, hizkuntzak funtziorik oinarritzkoenak bereganatu be-

*«Ordezkatze-prozesuen
abiapuntua defizit
funtzionala (erabilera-
esparruen galera) izan ohi
da, honek defizit
demografikoa (hiztunen
galera) ekarri ohi du eta
azken honek ondorioztat
hizkuntzak lurraldea ere
galtzea dakar»*

«Azken 20 urteotan familia bidez egiten den hizkuntz transmisioak hobekuntza nabarmena izan du familia euskaldunetan»

- har ditu; batez ere, belaunaldi berrietan hizkuntzaren gaitasun-maila bat izanik, hain oinarritzkoa gertatzen den familia mailako funtzioa garatzeko ahalbidea dagoenean.
4. Haurren errealitatea nagusiki hiru esparrutan dago banatua: eskola, familia eta eskolaz edo familiaz kanpo suertatzen den esparrua.
 5. Bestalde, ezin zaio eskolari soilik eskatu hizkuntza ikasteko prozesuaren (mobiltasuna, ezagupena eta erabilpena) erantzukizuna, bai gizarte mailako faktoreek bai familia mailakoek garrantzi handia dute-eta. Urteak dituen 365 egunetatik, haurrak 180ren bat egunetan baino ez dira joaten eskolara, eta egun horietan, egun osoak dituen 24 orduetatik 5 bat ordu igarotzen dituzte bertan. Hortaz, eskolan garatzen den hizkuntza ikasteko prozesua eta familiaren esparruan hizkuntza erabiltzea, bi gauza elkarrekiko osagarri izan behar dira.
 6. Euskararen familia bidezko transmisioak galerak jasaten ditu, 1986ko erroladako datuen arabera eta, errola horretan oinarrituz, mapa soziolinguistikokoan jasorik daudenen arabera.

4.2 ANALIZATU BEHARREKO ERREALITATEAREN DESKRIBAPENA

Adierazitako argudioez gain, ponentzia honetako 5.1 puntuan deskribatutako grafikoa erabili zen eragin nahi zeneko iharduketa-esparrua modu eskematikoan agertzeko.

Haur baten (0-13 urte) errealitatea nola osatua dagoen aztertzen badugu, ohartuko gara, lehenago esan dugun bezala, errealitate hori batik bat hiru esparruk osatzen dutela: familia, eskola eta bi horietaz kanpo garatzen den esparrua (kalea, eskolorduz kanpoko iharduerak...).

Haur baten errealitatea horrela eratua badago, **haurraren hizkuntz errealitatea** ere horrela egongo da antolatua.

Ikus dezakegunez, esparruek haurraren errealitatean duten eragina aldatu egiten da adina gehitu ahala. Haurrak 0-3 urte dituenean, haurraren errealitatea ia erabat familiak osatzen du. 3 urtetik aurrera haurra eskolara hasten da eta famili esparruaren garrantzia gutxitu egiten da ikastorduen eta sortuz doazkion gune berrien ondorioz (aisialdiko iharduerak, komunikabideak, lagunartea...).

4.3 LEHENTASUNEN AUKERAKETA

Atal honetan seinalatu beharra dago ezen hizkuntza normalizatzeko prozesuan familiak duen paperaren indartzea sustatzearen lehentasuna teknikoki azpimarratu bazen ere, ez zuela babes eta antolamendu politik-administratibo nahikorik izan hizkuntz politikaren lehentasunen artean sartzeko eta irizpide-eta iharduketa-batasunez koordinatutako programak garatzeko, eta horrek benetako arazoak ekarri zizkion programak herrietan gauzatzeari (programaren zehaztapen bateraturik eza, ikasprozesuen diseinu bateraturik eza...).

Lehentasunen aukeraketa, orain programaren beraren diseinuaren barruan, gurasoen hizkuntz tipologian eta, neurri apalagoan, guraso horien haurraren adinean oinarrituz hezurramitu zen.

Hala ere, adierazi berri dugun bezala, batasunik eza nabaritu zen programa zein eratako ikasleei zuzendu behar zitzaizen zehazterakoan. Haurraren adinari dagokionez, herri batzuetan programa 0-5 urteko haurren gurasoei zuzendu

zitzaien; beste batzuetan, berriz, adina 13 urte arte zabaldu zen. Gurasoen hizkuntz tipologiari dagokionez, euskaldunak (elebidunak) eta erdal elebakarrak desberdinu ziren.

4.4 HELBURUEN ZEHAZTAPENA

Programa honen helburu orokorra euskararen familia bidezko transmisioa hobetzea zen. Helburu hau, ordea, egokitu beharra zegoen, transmisio horretan eragiten zuten aldagai ezberdinak kontuan hartuta (gurasoen hizkuntz tipologia, haurren adina...).

Helburu espezifiko hauek (bateratu gabeak) maila ezberdinetakoak ziren: guraso euskaldunen (elebidunen) motibazioan eragitea euskara beren haurrei transmititzeko, edo guraso hauek beren euskarazko ezagupenak optimizatzen animatzea, edota guraso erdaldunak beren haurrekin euskaraz komunikatzen iritsi ahal izatearren euskarazko ezagupenak eskuratzeko (eskaintzen ziren ikastaroen bitartez) motibatzea.

4.5 EGITASMOAREN PRESTAKETA ETA EGIKARITZAPENA

Euskararen familia bidezko transmisiorako programak bi fase desberdinu izan zituen:

Lehen fasea **sentsibilizazio-kanpaina** batek osatzen zuen, gurasoei beren hizkuntz tipologiaren arabera zuzendutakoa. Transmisioarekiko sentsibilizatzeko kanpaina hau elikapen-kanpaina baten itxurapean kaleratu zen, kanpaina horren ezaugarria biberioia zelarik eta honelako mezuak erabili zirelarik: «*Dáles lo que no tienes*» (erdaraz, guraso erdaldunei zuzendua, euskara transmitituko duten bideak hauta zitzaten, hots: hizkuntz eredu euskaldunak irakaskuntzan...), «*Eman zeurea*» (euskaraz, guraso euskaldunei zuzendua, euskara transmiti zezaten), «*Tómatelo tú*» (erdaraz, guraso erdaldunei zuzendua, antolatzen ziren ikastaroen bidez euskarazko ezagupenak eskura zitzaten) eta «*Zeuk hartu*» (euskaraz, guraso euskaldunei zuzendua, beren euskarazko ezagupenak optimiza zitzaten).

Bigarren fasea **euskarako ikastaroek** osatzen zuten. Nagusiki, hizkuntza bereganatzeko bi programa-mota garatu ziren: bata alfabetatzekoa, euskaraz jakin arren (gehienek euskara zuten ama-hizkuntza) batez ere idazmen aldetik beren haurrekin (eskolako lanetan laguntzeko...) idatziz erlazionatzeko ezagupen nahikorik ez zuten gurasoei zuzendua; eta bestea euskalduntzekoa, euskaraz ez zekiten edo oso gutxi zekiten gurasoei zuzendua. Hala ere, herri gehienetan euskara eskuratzeko programa guraso erdaldun elebakarrei zuzendu zitzaien.

Herri batzuetako proiektuetan bereizi egin ziren hizkuntzaz mistoak ziren gurasoak eta hauekin euskara familiako hizkuntza bihurtzeko helburua planteatzen zen, familiakide guztiek euskarazko ezagupenak izanik (beste bikotekideak eta haurrek). Taldeak osatzerakoan, aldagai hau mantentzeko zailtasunak eragotzi zuen ezaugarri hauek ikasleez soilik osatutako taldeekin esperientziak garatu ahal izatea.

Programa hauekariko gehienetan erabili zen metodologiak saihestu egin zituen gramatika soileko eskolak eta komunikaziozko programa bat aukeratu zen, gurasoen eta haurren arteko benetako erabilera bat lortzeko helburuarekin, horretarako eguneroko komunikazio-egoerak oinarri hartuz (haurra jaikiaraztea, eskolara eramatea, jaten ematea...).

«*Bi gurasoak euskaraz ongi hitz egiten dakiten kasuetatik ia hirutik batean ez diete beren ezagupen-maila beren seme-alabei transmititu*»

«Gerra ondorenean eta frankismoaren garaian eskolatua izandako jendea da transmisioa okerren jaso duena. Belaunaldi berrietan ez da gertatzen, lehen adina, guraso euskaldunek beren seme-alabei euskararik ez irakastea. Aiton-amonek euskara beren seme-alabei hobeki transmititu zietela hauek beren seme-alabei baino»

4.6 BALORAZIOA

«Transmisio-kanpaina» hauen balorazio kritikoa egingo bagenu, aurreko puntuen ordena jarraituz, programa bat hizkuntza aldetik planifikatzerakoan jarraitu ohi diren urratsekin bat baitatoz, lehenik eta behin adierazi beharko genuke ongi asmatu genuela tratatu beharreko gaia planteatzerakoan eta analizatu nahi genuen errealitatea deskribatzerakoan.

Egin genuen diagnostikoa egokituz jo badezakegu ere, ezin esan dezakegu gauza bera lehentasunak hautatzeari dagokionean, ez programaren beraren lehentasunak zehazterakoan (hizkuntz tipoak, haurren adina...), eta ez, batez ere, programa hura hizkuntz politika garatzeko orduan lehentasunezkoztat jotzerakoan, hala nazio mailan nola udalerrri mailan, eta horrek programaren errendimendua nabarmenki baldintzatu zuten hainbat ondorio ekarri zituen (irizpideen batasunik eza, bitarteko nahikorik eza...).

Helburuei dagokienez, azpimarra dezakegu ez zirela behar adinako zorroztasunez zehaztu. Helburu espezifikoak, udalerrri bakoitzak markatu zituen lehentasunen zehaztapenaren arabera dibertsifikatu ziren eta horrek ezinezko egin zuen lortu nahi ziren hizkuntz helburuen zehaztapen bateratu bat egitea (euskara famili hizkuntza bihurtzea, euskarazko ezagupenak eskuratzea, guraso euskaldunak motibatzea...).

Programa gauzatzeari dagokionez, nabarmentzekoa da sentsibilizazio-kanpainak, ongi diseinatuak egoteaz gain, markatutako helburua lortu zutela, informazioari hedapen zabala (komunibideetan) eta zuzenekoa emanez (gurasoekin eskoletan solasaldiak antolatzea iritsiz).

Sentsibilizazio-kanpaina haien eraginez eta ikastaroak antolatzeko ematen ziren erraztasunei esker (ordutegi malguak, talde homogenoak, matrikula merkeagoak...), programa honetan kurtsoko mila bat ikasle matrikulatu zirela jotzen dugu (ez daukagu eskuera zifra zehatzagorik).

Emandako euskarako ikastaroetatik, egindako balorazioei ezaugarri batzuk ezar diezazkiekegu, ondorengo puntuotan laburbilduak:

- Oro har, asistentzia ona izan da.
- Ikaste-erritmoa ez da ohikoa (ikasle estandarra 30-35 urteko etxeoandrea da, oinarrizko ikasketak dituen, baina ikasteko ohiturarik ez duena eta lehen hizkuntzaren ezagupen formalik gabekoa).
- Ikaste-prozesuarekiko sortutako espektatibak (ongi definitu gabeak) ez dira oro har bete.
- Talde homogenoak (interes beretsukoak) izatea lagungarri gertatu da ikasprozesua garatzerakoan.
- Programa hau ohiko euskalduntze-ikastaroekin alderatuz gero, zenbait abantaila azaltzen dira, hala nola ikasten ari direnari aplikazio (erabilera) erreala, berehalakoa eta hurbila (bere haurrarekin, klasetik ateratakoan eta bere etxean) ikustea edo hizkuntza «bere haurrarekin» erabili ahal izateak suposatzen duen motibazioa.
- Ikasprozesuko hasierako urratsetan interesgune nagusia haurra izaten da, baina ikasprozesuak aurrera egiten duen heinean, interesgune hori gurasoengana beraiengana aldatuz doa.
- Ahalegin garrantzitsua egin da metodologia eta ikasmateriala ikasle hauen

ezaugarriei egokitzen, eta horrek, helburuak lortzen laguntzeaz gain, berrikuntza didaktikoak ekarri ditu.

Azkenik, negatibotzat balora daiteke, hain zuzen, programak izan ez duen balorazio edo ebaluazio baten falta.

4.7 ONDORIOAK

Edozein programa ezarri berrik bezala, euskara familia bidez transmititzeko programa honek ere ondorio positiboak eta negatiboak izan ditu. Ondorio hauek honela laburbil ditzakegu:

Ondorio positiboak

- Euskararen normalizaziorako oinarritzkoa den esparru bat kontutan izan dadin eta hizkuntz plangintzaren lehenetsunetan sar dadin laguntzeko balio izan du.
- Helduen euskalduntze-alfabetatzearen sektore berri eta oso interesgarriaren gaitasuna iristea lortu dugu.
- Sektore eta behar zehatzei egokituriko ikastaro funtzionalen beharra azalarazi da.
- Zuzenki ez bada ere, irakaskuntzan hizkuntz eredu euskaldunak sendotzeko balio izan du.
- Zenbatean eta nola zehaztu ezin badugu ere, sektore horretan euskararekiko motibazioa, euskararen ezagupena eta beronen erabilera areagotzeko balio izan du.
- Euskararen normalizazio-lanetan diharduten erakunde desberdinen elkarlanean ezinbestekotasuna birgogoratzeko balio izan du.

Ondorio negatiboak:

- Euskararen normalizazio-lanetan diharduten eta esparru honetan iharduteko eskumena duten erakundeek elkarrekin iharduteko azaldu duten ezintasuna.
- Aurreko puntuan azaldutakoa dela medio ikasleak galdu izana, euskarak bizi duen egoera delikatuaren zilegi ez den luxua.
- Ekimen hauek behar diren urrats guztiak gauzatuz ez egiteagatik (aurretiazko erabakiak, funtzio-banaketa, definizioa...) emaitzak behar luketen bezain onak ez izatea.

4.8 ABIAPUNTU BERRIA

Esperientzietatik ikastea baino ikasbide hoberik ez dago. Euskara familia bidez transmititzeko programa hauen esperientzietatik esparru honetan garatu behar den hizkuntz plangintza zorrozkiago taxutzeko balio izan behar digute.

Programa honek izan dituen gabeziak eta akatsak ongi ebazteak euskararen normalizazioan hainbesteko lehenetsuna duten transmisio-programa berrien abiapuntua markatu behar du.

Lehenetsun hau soziolinguistika aplikatuaren eskuliburuetan azpimarratzen da eta bultzaka dator funtzionalki erdaldunak diren belaunaldi berri elebidunekin (gehienez gaztelania dute ama-hizkuntza bakarra eta eskolaren bidez elebidundu dira). Hauen kasuan berebiziko garrantzia izango du hauek hurrengo

«Aldirik txarrena 1920tik 1970era bitartekoa izan dela ikusten da. Urte horietan jaiotakoek, tarteko salbuespen labor batean izan ezik, bizi izan zituzten baldintzarik okerrenak. Guraso euskaldunak dituztenen artean, transmisioaren emaitzarik onenak azken 20-25 urteetan jaiotakoan artean aurkitzen badira ere, baieztapen hau are gehiago sendotzen da bi unibertsoetako 16-21 urteko gazteen»

*«Guraso euskaldun
bakarra duten seme-
alaben artean ere, azken
urteotan jaiotako
transmisioaren emaitzak
belaunaldi zaharragoetan
aurkitzen ditugunak
baino askoz hobeak dira»*

belaunaldiari euskara (edo behintzat euskara «ere bai») familia bidez transmititzeak, honek euskara ama-hizkuntza izateko behar adinako indarrarekin, izan ere ama-hizkuntza euskara dutenen tasa bikoiztea suposa baitezake. Faktore honek (ama-hizkuntzak), egindako azterlanek adierazten dutenez, eragin zuzena dauka hizkuntz gaitasunean, hizkuntz erraztasun erlatiboan eta, beraz, hizkuntza bakoitzaren benetako erabileran.

5. ERAGIN NAHI DEN ERREALITATEAREN DESKRIBAPENA

Arestian aipatu dugu txosten honek hedapen funtzionalean duela bere abiapuntuko ikuspegia.

Hedapen funtzionala nola egin behar den jakiteko, ordea, alde aurretik errealitatea funtzioen arabera banatu behar dugu. Banaketa hori hainbat modutara deskriba badaiteke ere, hemen azaltzen dudan hau gure artean erabilien den funtzioen edo iharduera-esparruen banaketaren arabera dago eгина.

Iharduera-esparruen bidez hizkuntza batek gizarte batean izan ditzakeen erabilera-espazioak defini ditzakegu. Azken batean, gizarte horren errealitatea osatzen duten zatiak aztertzen dira.

Iharduera-esparru horiek adinaren arabera ordenatuz gero, iharduera-esparruek giza multzo desberdinengan duten eragina ikus genezake.


Hurrengo orrian duzuen grafiko horrek iharduera-esparruek giza multzo desberdinengan (haur, gazte, heldu eta zahar) duten eragina aztertzen du. Espazioei ematen zaien balioa estimatiboa da, eta ez du inolako zehaztasun zientifikorik ukan nahi. Giza multzo bakoitzarengan eragiten duten balioen zenbaketokoa modu estimatiboz eta giza multzo horren batezbestekoa kontutan harturik burutu da.

Esparruen banaketa hau ez da identikoa herri txiki batean eta hiri batean. Gainera, gizarte aldatuz doan heinean, esparru bakoitzaren pisua ere aldatuz doa (gizarte mediatikoa, famili antolaketa tradizionalaren aldaketa...).

Bere funtzio nagusia eragite-espazio horietaz jabetu eta eragite-espazioetan lehentasunak zehazten laguntzea da. Era berean, grafiko honek norbanakoaren bilakaeran eragin duten espazioak ere zehatz ditzake.

Bereizten diren bederatzi iharduera-esparruak honako hauek dira:

- 1.- Administrazioa
- 2.- Irakaskuntza
- 3.- Lan Mundua
- 4.- Komunikabideak
- 5.- Gizarte Zerbitzuak
- 6.- Kultur Mundua
- 7.- Aisialdia
- 8.- Familia
- 9.- Lagunartea




«Gurasoek ez badakite ezin dute transmititu; eta zenbat eta hobeto jakin, orduan eta hobeto transmititzen dute. Euskaraz ongi dakiena gurasoetako bat denean, transmisioak neurri nabarmen batean huts egiten du. Bestalde, transmisioak hobeto funtzionatu du amaren bidez egin denean (%17) aitaren bidez egin denean baino (%11,7)»

5.1 HAURRAREN ERREALITATEA

Haur baten (0-13 urte) errealitatea zein iharduera-esparruk osatzen duten aztertzen badugu (ikus hurrengo grafikoa), errealitate hori hiru esparru nagusik hezurmamitzen dutenaz jabetuko gara: familia, eskola eta bi hauetatik kanpo geratzen dena (kalea, jolaslekuak, eskolaz kanpoko iharduera, telebista...).

Haurren errealitatea honela osatua badago, haurraren hizkuntz errealitatea ere modu honetan antolatua egongo da.



Grafikoan ikus daitekeenez, esparruek haurraren errealitatean duten eragina aldatuz doa adinaren arabera. Haurrak 0-3 urte bitarteko adina duenean bere errealitatea ia erabat familiak osatzen du. Behin 3 urte dituenetik aurrera, haurra eskolatu egiten da eta famili esparruaren garrantzia gutxituz doa eskolorduen eta eskolaz kanpo sortzen zaizkion beste hainbat esparruren (aisialdia, komunikabideak, lagunartea...) ondorioz.

Grafiko honetan nabarmen ikus daiteke familiak hizkuntzaren erreproduktio-mekanismo modura duen garrantzi koantitatiboa (haurraren «bizitza-orduen» zati handia bere baitan garatzen den heinean).

Gurasoen errealitatea aztertuta ere (ikus 25-40 urte bitarteko grafikoak), familiak pertsona helduengan ere (eta beraien hizkuntz errealitatean) duen garrantzia nabarmen daiteke.

5.2 FAMILIA HARREMAN-SARE MODURA

Baina familiaren hizkuntz garrantzia (batez ere koantitatiboki) gizarte-bizitza osatzen duten esparruen banaketarekin nabarmen ageri bazaigu ere, interesgarria da familia talde modura, pertsonen harreman-sare modura, nola antolatzen den ikustea.

Izan ere, esparru bakoitza (funtzio bakoitza) harreman-sare bat da aztergai dugun pertsona bakoitzaren ikuspegitik (lantegiko langileen arteko harreman-sarea(k), ikasgelako ikasleen arteko harreman-sarea(k), laguntaldeko lagunen harreman-sarea... familiako kideen harreman-sarea). Familia harreman-sare gisara aztertuta, bere hizkuntz garrantzi koalitiboa argitzen saiatuko naiz.

Horretarako, Iñaki Martínez de Luna irakaslearen zuzendaritzapean EHUko lantalde bat burutzen ari den lana hartu dut erreferentziatzat eta bertan ezartzen diren oinarriak familiaren kasura moldatzen ahalegindu naiz kapitulu honetan.

Hemen jasotakoak aipatu lantaldearen txostenetan du abiapuntua eta, beraz, lan hau oinarri horiek harreman-sare batean (famili unitatean) zehazteko eta aplikagarritasuna (teorikoa bada ere) bilatzeko saiakera xume bat besterik ez da. Hala ere, agian, euskararen berreskurapenarentzat duen garrantzia ikusita, ikerketa-lerro antolatu batean bilaka dadin proposatzea ez da gehiegizkoa izanen.

Soziologiaren jakintza-arloan txertatzen ari den gizarte-sareen ikerketa-teknika honekin lan egiten dutenek, gizarte-sareak definitzeko erabiltzen dituzten elementuen arabera, familia «gizarte-sare» modura kontsidera dezakegu.

Sarea lau elementuz osatzen dela azaldu ohi da. Oinarrizko osagaiak **aktoreak** (sare barnean igorle eta hartzaile gisa jokatzeko duten gizabanako edo taldeak) eta **lokarriak** (sarearen harreman-elementuak dira, aktore ezberdinen arteko loturak) dira. Sarearen funtsezko ezaugarriak, berriz, **zentralitatea** (aktorearen sare barneko kokapena) eta **harreman-mota** (harreman formala, sentimentala edo truke-harremana) dira.

Begi-bistakoa da familia sare modura kontsidera dezakegula harreman-multzo bat den heinean. Izan ere, sarearen elementuak oso zehatz defini ditzakegu familiaren kasuan.

- * Aktoreak: familia osatzen duten kideak (aita, ama, semea, alaba...).
- * Lokarriak: familiakideen arteko loturak.
- * Zentralitatea: familiakideen arteko zentralitate-maila desberdinak izango dira familia desberdinetan.
- * Harreman-mota: familiakideen arteko harreman-mota batez ere sentimentala izango da.

Sareak aztertzerakoan, ez dira sareko aktoreen ezaugarriak arretaren erdigunea, aktoreen arteko lokarriak (harremanak) baizik, hauen bidez deskribatzen baitira aktoreen portaerak.

Sarearen egiturari erreparatzen badiogu, berriz, sarearen egitura barnean oso kontutan hartu beharrekoa giza aktoreek betetzen duten **kokagunea** da (erdiguneko kokagunea eta inguruko kokagunea), izan ere, aktoreen portaeraren faktore garrantzitsua da, aktore batek besteekiko duen autonomi edo menpekotasun-maila mugatzen baitu.

Familiakideek, sare gisara, kokapen desberdina dute familiaren etapa desberdinetan eta, noski, familia desberdinetan. Nabarmena da, ordea, **gurasoek haurrerekiko duten kokapen zentralak bere hizkuntz portaera (ama-hizkuntza, hizkuntz gaitasuna eta familiako erabilera-hizkuntza) baldintzatzen (definitzen) duela**, haurrak beraiekiko erabateko menpekotasuna duelako.

Sareen morfologiari dagokionez, berriz, lau elementu bereizten dira. Lehendabizikoa **kokagunea** da. Elementu honek sarea zedarrizteko balio du. Sarea erreferentzi puntu bat hartuz irudikatzen da eta normalean puntu hori

«Hizkuntz transmisioaren azterketak garbi azaldu du, oso loturik aurkitzen direla seme-alaben adina, belaunaldiak eta aro soziopolitikoak»

«Euskara ongi ezagutzen duen guraso-bikote batek bere seme-alabei euskara irakasterakoan zer nolako aldea aurkitzen duen euskara nagusi den zonalde batean bizitzeak edota erdara nagusi den zonalde batean bizitzeak»

bere portaera azaldu nahi den aktore batek definitzen du. Gure kasuan portaera azaldu nahi dugun aktorea haurra da eta gehienetan bere familiako harreman-sarea familiakideen bidez erabat zedarritua geratzen da.

Bigarren elementua **eskuragarritasuna** da eta aktore batek besteekin dituen harremanek bere portaera zenbateko indarrarekin baldintzatzen duten adierazten du. Sare barneko eskuragarritasuna distantzia gisa neur daiteke. Gure kasuan, esan genezake **familia eskuragarritasun handiko sarea dela, berau osatzen duten kideen arteko harremanak zuzenak direlako (artekari gabekoak) eta horrek oso komunikazio-kanal indartsua suposatzen duelako (edozeren transmisiorako gune aproposa).**

Hirugarren elementua sarearen **dentsitatea** da. Aktore guztiak beraien artean lotuak badaude, sare horrek gorengo dentsitatea du. **Familia gorengo dentsitateko sarea da, berau osatzen duten kide guztiak beste guztiak (aitak amarekin, amak haurrarekin...) harremanak dituztelako.**

Laugarren elementua **maila** da. Sare barneko hierarkia adierazten du. Sare bat aktore baten inguruan eraikitzen denean gainerantzeko aktoreek honekiko harreman-aukera desberdinak izango dituzte: batzuek zuzenak (maila gorenekoak), besteek apalagoak. **Familien artean desberdintasun handiak badaude ere, sare modura maila desberdinak nabarmen daitezke.**

Halaber, erantsi behar da, sarean inplikaturiko aktoreen gizarte-portaerak **harremanen zenbait aspektuk** baldintza ditzaketela. Aspektu nagusiak edukia, norabidea, iraupena, intentsitatea eta maiztasuna dira:

- * **Edukia:** sarea osatzen duten kideek sareko beste kideekin dituzten harremanek beti dute helburu bat, alde batek edo biek interes bat (edukia) dute. Familia harreman-sare modura hartuta, **elkarbizitza** (maitasuna, babes...) gisara defini genezakeen helburu edo eduki indartsua izan ohi du gehienez.
- * **Norabidea:** sare barneko harremanek norabidea izan ohi dute, elkarrekikoa edo norabide bakarrekoa. Familiaren kasuan (etapa desberdinetan norabide desberdinak izan baditzaite ere), **harremana elkarrekikoa dela esan genezake.**
- * **Iraupena:** sare batek biziraupen jakina du eta bizirik iraungo du helburu zehatz batzuk izan eta besteekiko eskubide eta betebeharrak mantentzen diren bitartean. Familiaren kasuan, iraupena aldakorra bada ere, **bizitzan zehar iraupen luzeenetakoa duen harreman-saretzat jo genezake.**
- * **Intentsitatea:** aktore baten portaerarengan sareko beste aktoreek duten eragina da. Familiaren kasuan (etapa desberdinak baditu ere) **intentsitate goreneko harremana dagoela adieraz genezake.**
- * **Maiztasuna:** harremanaren errepikapena adierazten du. Haurraren adinarekin familiakideen arteko harremanen maiztasunak aldatuz badoaz ere, **maiztasun handiko harremanak dira familian gertatzen direnak.**

Familia bakoitza harreman-sare bat eta berezia denez, ezin daiteke guztientzat **baligarria** den karakterizazioa egin. Gainera, familiaren karakterizazio hau, **modu bizkor** eta adierazgarrian aldatzen ari da azken urte hauetan (guraso bakarreko familiak, bi bikotekideek lan egitea, haurtzaindegiak...). Hala ere, **gizartean ohikoena** izan daitekeen familiaren argazkia ateratzera ausartu naiz (ikus **taula**), horretarako harreman-sareen osagaiak, ezaugarriak, egitura, morfologia eta harremanak defini ditzaketen elementuak erabiliz.

Familia harreman-sare modura

Osagaiak	Aktoreak	Familia osatzen duten kideak (aita, ama, semea, alaba...).
	Lokarriak	Familiakideen arteko loturak (harremanak)
Ezaugarriak	Zentralitatea	Familiakideen sare barruko kokapena
	Harreman-mota	Sentimentala batez ere.
Egitura	Kokagunea	Gurasoak erdian, haurrak inguruan...
Morfologia	Sarearen kokagunea	Haurra erreferentziatzen harturik sarea definitzen duena.
	Eskuragarritasuna	Handia: harreman zuzenak, komunikazio-kanal indartsua.
	Dentsitatea	Handia: kide guztiak arteko harremanak
	Maila	Maila desberdin asko ez. Nahikoa horizontala. Gurasoak/haurrak maila desberdinak
Harremanak	Edukina	Indartsua: elkarbizitza
	Norabidea	Elkarrekikoa: norabide guztiak dituen.
	Iraupena	Luzea: harreman-sare iraunkorrenetakoa.
	Intentsitatea	Handia: kideen portaeran eragin gorena.
	Maiztasuna	Handia: kideen arteko elkarrekintza asko.

Laburbilduz, esan daiteke familia harreman-sarea dela, harreman sentimentalek definitua, eskuragarritasun eta dentsitate handiko harreman-sarea dela eta helburu indartsuko, bi zentzuetako norabideko, iraupen luzeko, intentsitate handiko eta maiztasun handiko harreman-sarea dela. Beraz, sare horretan sortzen diren harremanek berebiziko indarra (koalitatea) dute sare horren partaideen portaeran (baita hizkuntz portaeran ere, noski).

Familia da gizabanakoak izan ohi duen lehen taldea (lehen esparrua, lehen harreman-sarea, hau da, pertsona-mailatik talde-mailara salto egiten duen («sozializatzen den») lehen aldia. Talde honek gainera izugarritzko indarra du harreman-sare gisara (intentsitatea, iraupena, helburua...) eta hori guztia hizkuntza baten (edo gehiagoren) bidez, normalean lehen hizkuntzaren (ama-hizkuntzaren) bidez, gauzatzen da, hizkuntza hau pertsona- eta talde-izaeraren ezaugarririk garrantzitsuenetakoa bilakatuz.

5.3 FAMILIAREN SORRERAKO URRATSAK ETA HIZKUNTZ JOKAERAK

Familia, beraz, hizkuntz jokaeraren definitzaile nagusietariko delako baieztatu behar da huts egiteko arrisku handirik gabe.

Hala ere, familia ez da egitura edo harreman-sare finkoa, bere sorrera-prozesua du eta, ikusiko dugunez, sorrera-prozesuak berak definituko du neurri batean geroago bere baitan burutuko den hizkuntz jarraipena.


Familiaren sorrerako urratsak jasotzen dituen hurrengo orriko grafikoan lau urrats daude. Lehendabizikoan harreman-sare (laguntaldea...) desberdinetako bi pertsonaren lehen harremana irudikatzen da. Bigarren diagramak harreman-

«Aurreko belaunaldietan nabari zen higadura edo erosioa gutxitu egin da azken urteotan eta euskaldun gurasoek beren seme-alabei lehen baino proportzio altuagoan transmititzen diete euskara»

tan jarritako bi pertsona horiek sortutako harreman-sare berria (bikotea) jasotzen du. Hirugarren urratsa bikote horrek ondorengoa (haurra) sortzen dueneko da, harreman-sare berriak aldaketak dituelarik. Laugarren urratsean gauza bera azaltzen da, baina bigarren haur bat (laugarren elementu bat) egonik harreman-sare horretan.

Diagrama honek familia estandar baten sorrera-prozesua jasotzen badu ere, bai hurrenkeran eta bai harreman-sareko elementuetan ere, hainbat aldaera izaten dira errealitatean.

Familiaren sorrerako urratsak



Ondorengo orriko taulan familia baten sorrerako urrats nagusi horiek jasotzen dira alde batetik, eta urrats desberdin horietan hizkuntz jokaera (erabilera-hizkuntza) definitzen duten aldagaiak zehazten dira bestetik.

Lehendabiziko lerroan, geroago bikotekide izango direnen abiapuntuko egoera deskribatzen da. Dena delako harreman-sare horretako (gehienetan laguntaldeak) hizkuntza, harreman-sarearen ezaugarri linguistikoeak (euskaldunen dentsitateak) eta ez-linguistikoeak (harreman-sarearen edukia, norabidea, intentsitatea, iraupena, maiztasuna...), elebidunek duten hizkuntzen gaitasun erlatiboak eta bertako kideek euskararekiko duten interesak / jarrerak definituko dute.

Harreman-sare horietatik, ordea, sortu ohi dira geroago familiak sortu ohi dituzten bikoteen hasikinak. Aipatu faktore horien arabera bikote euskaldunak, mistoak edo erdaldunak izango ditugu ezagupenari (edo euskaldunen dentsitateari) dagokionean, eta lehenengo kasuari dagokionez (bikote euskaldunena), bikotekideen elebitasun-motak eta jarrerak baldintzatuko dute hizkuntz jokaera (bikote-hizkuntza).

Hizkuntz jokaera honen finkapena oso da garrantzitsua, izan ere, hurrengo belaunaldiari familia bidez hizkuntza transmititu edo ez (bikote euskaldun eta mistoek duten aukera), famili hizkuntza betiko sustrai dezakeen unea baita (bikotekideek beraien artean ezagututako hizkuntzak hainbesteko indarra du, ezen guraso izatean ere hizkuntz ohitura bera mantentzen baita gehienetan).

Hirugarren urratsa da benetan hizkuntz jarraipena zehazten duena (nahiz ikusi dugun gisara aurreko urratsek berau neurri handian baldintzatu). Bikoteak ondorengoa sortzen duenean sortzen da hizkuntzaren (hizkuntza baten, bestearen edo bien) jarraipena edo jarraipen eza. Ondorengoari hizkuntza bat, bestea edo biak (edo gehiago) transmiti dakizkioke (ama-hizkuntza(k)) eta honen arabera eta bikotekideen hizkuntz tipologiaren arabera sortuko dira familia euskaldunak, mistoak eta erdaldunak. Gaitasun-aldagai honek eta aurreko urratsetan definituriko beste aldagaien konbinazio desberdinen bidez sortzen dira famili hizkuntzarako aukera desberdinak.

Laugarren urratsa hirugarrenaren jarraipena da. Elementu berri baten sorrera dago eta gertatzen den aldaketa koalatibo garrantzitsuena harreman-mota berri baten agerpena da. Harreman-mota hori anai-arreben arteko harremana da eta kasu honetan ere haurren gertuko harreman-sarea osatu egin da, belaunaldi bereko agian pertsonarik gertuenarekin hizkuntz jokaera bat finkatuz.

«Orain arte euskararen transmisioa prozesu natural baten bidez gauzatu baldin bada, orain, eta hemendik aurrera gehiago, prozesu kultural baten bidez gauzatzen hasi dela»

		Hizkuntz jokaera			
Urratsak	Harreman-sarearen diagrama	Harreman-sarea	Elebitasun mota	Jarrera	Emaitza
Laguntaldeak +...-sareak		<ul style="list-style-type: none"> - Euskaldunen dentsitate ingurune hurbilean (familia, lagunak, herria...) * Harreman-sare horien ezaugarriak (edukina, intentsitatea, iraupena, norabidea, maiztasuna...) 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal elebidunak - Elebidun orekatuak - Erdal elebidunak - Elebidun hartzaileak 	<ul style="list-style-type: none"> - Oso aldekoa - Aldekoa - Ez aldekoa, ez aurkakoa - Aurkakoa - Oso aurkakoa 	Laguntaldeko (...-sareko) hizkuntza
Bikotea		<ul style="list-style-type: none"> - Bikote euskaldunak ($p=1$) - Bikote mistoak ($p=0,5$) - Bikote erdaldunak ($p=0$) * Harreman-sare berriaren ezaugarriak (...) 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal elebidunak - Elebidun orekatuak - Erdal elebidunak - Elebidun hartzaileak 	<ul style="list-style-type: none"> - Oso aldekoa - Aldekoa - Ez aldekoa, ez aurkakoa - Aurkakoa - Oso aurkakoa 	Bikoteko hizkuntza
Bikotea + Haurra (0-3 urte)		<ul style="list-style-type: none"> - Familia euskaldunak ($p=1$) - Familia mistoak ($0,3 < p < 0,6$) - Familia erdaldunak ($p=0$) * Harreman-sare berriaren ezaugarriak (...) 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal elebidunak - Elebidun orekatuak - Erdal elebidunak - Elebidun hartzaileak 	<ul style="list-style-type: none"> - Oso aldekoa - Aldekoa - Ez aldekoa, ez aurkakoa - Aurkakoa - Oso aurkakoa 	Haurraren ama-hizkuntza / famili hizkuntza
Bikotea + 2 haur		<ul style="list-style-type: none"> - Familia euskaldunak ($p=1$) - Familia mistoak ($0,25 < p < 0,75$) - Familia erdaldunak ($p=0$) * Harreman-sare berriaren ezaugarriak (...) 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal elebidunak - Elebidun orekatuak - Erdal elebidunak - Elebidun hartzaileak 	<ul style="list-style-type: none"> - Oso aldekoa - Aldekoa - Ez aldekoa, ez aurkakoa - Aurkakoa - Oso aurkakoa 	Haurraren ama-hizkuntza / famili hizkuntza
...					

Familiaren sorrerako prozesua eta hizkuntz jokoerak deskribatu nahi dituen taula honetatik bi ondorio atera daitezke haurraren ama-hizkuntzari eta famili hizkuntzari buruz:

1. Hizkuntzaren familia bidezko jarraipena (haurraren ama-hizkuntza) ondorengoia sortu eta beronekin harremanak hasten diren unean hasten da gauzatzen, eta transmititzen den hizkuntza euskara ere behintzat izateko aukera (gaitasuna) bikote euskaldunen eta bikote mistoen (bikotekide euskaldunaren bidez) kasuan dago.
2. Haurraren ama-hizkuntza (eta beraz hizkuntzaren familia bidezko jarraipena) eta famili hizkuntza, hizkuntza desberdinak izan badaitezke ere, famili hizkuntzak haurraren ama-hizkuntzaren nolakotasuna (kalitatea, erraztasuna eta, beraz, erabilera) baldintzatzen du eta famili hizkuntzaren definitzaile nagusia bikote- hizkuntza da. Bikote-hizkuntza (bikote misto eta erdaldunen kasuan beti erdara izango da) bikotekideek elkar ezagutzen duten une eta guneeetan (laguntaldeak...) erabakitzen da.

5.4 BIKOTE-MOTA, BIKOTE-HIZKUNTZA, AMA-HIZKUNTZA ETA FAMILI HIZ-KUNTZA.

Beraz, bikoteak familia bidezko jarraipenaren abipuntuko unitateak (harreman-sare berriaren lehen egitura) dira. Abiapuntuko unitate horiek hiru motatakoak izan daitezke bikotekideen hizkuntz tipologiari erreparatuz gero:

1. Bikote euskaldunak: bi bikotekideak euskaldunak direnean.
2. Bikote mistoak: bikotekide bat euskalduna denean eta bestea erdalduna.
3. Bikote erdaldunak: bi bikotekideak erdaldunak direnean.

Adierazi berri dudan modura, bikote-hizkuntza bikotekideak harremanetan jartzen diren momentuan hasten da finkatzen eta orduan bikote-hizkuntza zein izan daitekeen aukeratzeko modua bikote euskaldunek dute (beste bien kasuan horretarako aukerarik ez dago, bikotekide bat edo biak euskaldundu ezean).

Bikoteen hizkuntz jokoera (bikote-hizkuntza) finkatzeko aldagai nagusiak honako hauek dira:

1. Euskaldunen dentsitatea (harreman-sarean eta ingurunean).
2. Elebitasun-mota.
3. Euskararekiko jarrera / interesa.

Esan berri dudan gisara, bikote erdaldunek eta bikote mistoek erdaraz gauzatuko dute beren harremana eta erdara izango da, beraz, bikote-hizkuntza.

Bikote euskaldunen kasuan, euskaldunen dentsitatea ($2 / 2, \bar{n} = 1$) %100ekoa denez, bikotekideen elebitasun-mota da bikote-hizkuntza definituko duen aldagai nagusia. Lau elebidun-mota definitzen dira:

1. E1: Euskal elebidunak (euskaraz erdaraz baino errazago hitz egiten dutenak).
2. E=: Elebidun orekatuak (euskaraz eta erdaraz erraztasun beraz hitz egiten dutenak).
3. E2: Erdal elebidunak (erdaraz euskaraz baino errazago hitz egiten dutenak).
4. E0: Elebidun hartzaileak (euskaraz «zertxobait» hitz egiten dutenak edo horren ezean «ongi» edo «nahikoa ongi» ulertzen edota irakurtzen dutenak).

Lau elebidun-mota hauek konbinatuz gero (harremanetan jarriz), hamar bikote-

«Neurri handi batean hizkuntza baten biziraupena gizartean hizkuntza horrekiko dagoen aldeko edo kontrako giroaren baitan dago. Giro hori onarpen sozialaren, indar politikoen jarreraren, prestigio soziokulturalaren eta beste faktore askoren eraginez gauzatzen da»

«"Euskararen Familia bidezko Transmisio Kanpaina" izen orokorrarekin deskribatzen diren esperientziak (programa bera izendatzeko izen bat baino gehiago erabili izan dira) Euskal Herriko hainbat herritan 1989-90 ikasturtetik aurrera garatu diren programa batzuk dira. Nolanahi ere, kapitulu honetan deskribatzen dena 1992-93 ikasturtera arte garatutakoari dagokio, nahiz eta gaur egun programa horrek indarrean jarraitzen duen»

mota euskaldun ateratzen dira:

$E1 + E1 / E1 + E= / E1 + E2 / E1 + E0$

$E= + E= / E= + E2 / E= + E0$

$E2 + E2 / E2 + E0$

$E0 + E0$

Erraztasunari soilik erreparatuz gero, eta kontutan hartuz 1991ko inkestan jasotako datuen arabera ia euskal elebidun guztiek senarrarekin / emaztearekin («bikotearekin») nagusiki euskaraz egiten dutela, elebidun orekatuen erdiek egiten dutela nagusiki euskaraz eta erdal elebidunen bostetatik batek egiten dutela nagusiki euskaraz beren senarrarekin / emaztearekin; ondorengo hauek izango lirateke bikote-hizkuntzak (ikus taula):

Euskara bikote-hizkuntza: $E1+E1 / E1+E=$

Erdara bikote-hizkuntza: $E1+E0 / E=+E2 / E=+E0 / E2+E2 / E2+E0 / E0+E0$

Euskara / erdara bikote-hizkuntza: $E=+E= / E1+E2$

Bikote-mota / Bikote-hizkuntza / Ama-hizkuntza / Famili hizkuntza

Bikote-mota	Euskaldun p	Elebitasun-mota	Jarrerak	Aldagai ez-linguistikoak	Bikote-hizkuntza	Ama-hizkuntza	Famili hizkuntza
	0	—	*	—	ERDARA	ERDARA	ERDARA
	0,5	E_1, E_-, E_2, E_0	*	*	ERDARA	ERDARA EUSKARA	ERDARA EUSKARA
	1	$E_0 + E_0$ $E_0 + E_2$ $E_0 + E_-$ $E_0 + E_1$ $E_2 + E_2$ $E_2 + E_-$ $E_- + E_-$ $E_1 + E_2$ $E_1 + E_-$ $E_1 + E_1$	*	*	ERDARA	ERDARA EUSKARA	ERDARA EUSKARA
			*	*	ERDARA	EUSKARA	ERDARA
			*	—	EUSKARA	EUSKARA	EUSKARA

● : Erdal elebakarra ○ : Elebiduna E₁: Euskal elebiduna E₋: Elebidun orekatua E₂: Erdal elebiduna E₀: Elebidun hartzailea

«Ezer baino lehen, azpimarratzekoa da programa honek ez duela eduki arduradun zuzenik, ez eta planaren jarraipen sistematikoa egiteaz arduratu den erakunderik ere. Beraz, lerro hauetan adierazitakoak, idazten duenaren gaitasun handiago edo txikiagoaz gain, beste oztopo bat dauka gainditzeko: informazio osaturik eza eta berau barreiatua egotea»

Bikote-hizkuntzari buruz hipotesi hauek egin daitezke:


1. Bestelako eragilerik izan ezean, euskara bikote-hizkuntza izateko, edo bikotekide biek euskal elebidunak izan behar dute, edo bietako batek behintzat euskal elebiduna izan behar du eta beste bikotekideak elebidun hartzaileak duena baino gaitasun jasoagoa behar du, edo bestela biak elebidun orekatuak behar dute izan eta orduan hirugarren aldagai batek (harreman-sarearen ezaugarri ez-linguistikoek, jarrerak) aldekotasunez eragin beharko du bikote-hizkuntza euskara izan dadin.
2. Beste kasu guztietan (bikote erdaldunetan, bikote mistoetan eta aurreko pasarteetan jasoak geratu ez diren bikote euskaldunetan) bikote-hizkuntza erdara izango litzateke ziurrenik.

Hipotesi hauek indar berezia hartzen dute belaunaldi berrietan dauden hizkuntz tipologiak kontutan hartuz (ikus grafikoa: 1991ko erroldako hizkuntz gaitasunaren bilakaera adin-taldeka), izan ere, erdal elebakarrak desagertzen ari diren heinean, eta beraz elebidunak ugaltzen, bikote erdaldunen portzentaia gutxitzen eta bikote mistoen eta bikote euskaldunen portzentaia ugaltzen hasiko dira.

Fenomeno honek erabilpenerako lehenengo aldagaia (euskaldunen dentsitatea) asko ugaltzen badu ere (bikote erdaldunetan dentsitatea 0 da, mistoetan 0,50 eta euskaldunetan 1), erabilera eragiten duen bigarren aldagaia (elebitasun-mota) ez da hain itxaropentsua, zeren elebidun berri gehienak (ama-hizkuntza euskara izan ez eta irakaskuntzaren bidez elebidundu direnak) ez baitira kasu gehienetan euskal elebidunak eta honek, ondoriotzat, bikote-hizkuntzan (eta, beraz, ia ziurtasun osoz, haurren ama-hizkuntzan eta famili hizkuntzan) aurrikus zitekeen besteko onurarik ez izatea ekar baitezake, inertzia hauek horrelakoak izan ez daitezen ahaleginik egin ezean behintzat, hots: motibazioak indartu, hizkuntz tipologiak positibizatu eta optimizatu eta erabilera-esparruak (euskarazko harreman-sareak) areagotu.

Hizkuntz gaitasuna adin-taldeka

1991ko errolda



6. EUSKARAREN JARRAIPENA HOBETZEKO SAIO BERRIETARAKO ZENBAIT ORIENTABIDE

6.1 ONDORENGOA IZAN AURRETIK

Txostenean zehar aipatu dugu hizkuntzaren familia bidezko jarraipena (haurraren ama-hizkuntza) ondorengo sortu eta beronekin harremanak hasten diren unean hasten dela gauzatzen eta, haurraren ama-hizkuntza eta famili hizkuntza, hizkuntza desberdinak izan daitezkeela.

Famili hizkuntzak, ordea, haurraren ama-hizkuntzaren nolakotasuna (kalitatea, erraztasuna eta, beraz, erabilpena) baldintzatzen du eta famili hizkuntzaren definitzaile nagusia bikote-hizkuntza da eta bikote-hizkuntza bikotekideek elkar ezagutzen duten uneetan (adinetan) eta guneeetan (harreman-sareetan) erabakitzen da.

Bikote erdaldunek eta bikote mistoek beti erdara izango dute bikote-hizkuntza. Bikote euskaldunen artean, ordea, bikotekideek duten hizkuntz erraztasun erlatiboak, jarrerek eta bikoteak harreman-sare modura dituen ezaugarri ez-linguistikoek erabakiko dute bikote-hizkuntza.

Gero eta bikote euskaldun gehiago osatuko denez (adibidez, 1991ko erroldaren arabera, EAEn 25-29 urteko adin-tartean %24 dira euskaldun, %21 ia-euskaldun eta %57 erdaldun, eta 5-9 urteko adin-taldean, berriz, euskaldunen portzentaia ia bikoiztu egiten da, %40, ia-euskaldunak %30 dira eta erdaldunak, berriz, ia erdira jaisten dira, %29), oso onuragarria litzateke bikote-hizkuntzatza euskara luketenen tasa jasotzea.

Hala ere, elebidun horien hizkuntz erraztasun erlatiboa ez da kasurik gehienetan euskararen aldekoa izango eta eragin egin beharko litzateke bikote-hizkuntza euskara izan dadin ahalbidetzeko.

Horretarako, gazteen gizataldea (harreman-sareak...) aztertu behar da eta beren hizkuntz jokoaren eragin dezaketan aldagaiak landu egin beharko lirateke (euskarazko harreman-sareak sortu, gaitasuna hobetzeko bideak sustatu eta motibazioa lantzeko saioak prestatu).

Horrelako saiakera gutxi egin dira orain arte (badira laguntaldeak euskalduntzeko hainbat egitasmo abian, adibidez), baina gaiak euskararen jarraipenerako izan dezakeen garrantzia ikusita, jorratu beharreko arloa dela uste dut.

6.2 ONDORENGOA IZAN ONDOREN

Esan berri dugun modura, bikote-hizkuntza bata edo bestea izan (bere garrantzia nabarmentzen saiatu naiz), hizkuntzaren familia bidezko jarraipena (haurraren ama-hizkuntza) ondorengo sortu eta beronekin harremanak hasten diren unean hasten da gauzatzen eta transmititzen den hizkuntza bikotearen erabakiaren baitan dago.

Eragin beharrekoa, beraz, osatu berria den familiako bikotea da.

Euskararen jarraipenean bikotearen inplikazioak zer nolakoa izan behar duen argitzeko, bi aldagai hartuko ditugu kontuan.

Alde batetik, aipatu ditugun iharduera-esparruak (familia bera, irakaskuntza eta bi hauetatik kanpo geratzen den esparrua) izango dira bikotearen inplikazioa

«Belaunaldi berri elebidunek berebiziko garrantzia izango dute hurrengo belaunaldiari euskara (edo behintzat euskara "ere bai") familia bidez transmititzean, honek euskara ama-hizkuntza izateko behar adinako indarrarekin, izan ere ama-hizkuntza euskara dutenen tasa bikoiztea suposa baitezake»

«Iharduera-esparruen bidez hizkuntza batek gizarte batean izan ditzakeen erabilera-espazioak defini ditzakegu. Azken batean, gizarte horren errealitatea osatzen duten zatiak aztertzen dira»

erabakitzeko aldagai nagusietako bat. Izan ere, belaunaldiz belaunaldiko jarraipena familia bidez, eskola bidez edota eskolorduz kanpoko ihardueren bidez buru daitekeela esan dugu. Beraz, esparru horiek identifikatuak eta bereziak izatea lagungarri gertatuko zaigu.

Bestetik, berriz, bikotekideen hizkuntz tipologia izango dugu kontuan. Bikotekideen hizkuntz ezagupenak ere orientabideak emango dizkigu hizkuntza transmititzeko (eta zein bidetatik transmititzeko) aukerei buruz. Hiru tipologia nagusi bereiziko dira:


- 1.- Bikote euskaldunak
- 2.- Bikote mistoak
- 3.- Bikote erdaldunak

Bikotearen inplikazioa lortzeak belaunaldi berriari euskara transmititzea suposatzen du. Inplikazio hori, ordea, bide desberdinetatik buru daiteke: familiaren beraren bidez, eskolaren bidez eta eskolorduz kanpoko ihardueren bidez.

Hizkuntza normalizatua dagoenean, jarraipena hiru bideetatik eta kasu guztietan egiten bada ere (lehendabizi familia bidez, ondoren eskola bidez eta gero eskolorduz kanpoko ihardueren bidez), ez da hori gure kasua. Beraz, batez ere bikotekideen hizkuntz tipologia eraginda (familiaren bidez transmiti ahal daitekeentz kontutan izanik), bide batak besteak baino lehentasun handiagoa izango du.

Taulan ikus daitekeenez, bikotekideen hizkuntz tipologia familiaren inplikazio bidez (iharduera-esparruen lehentasuna) baldintzatzen ditu. Hau da:





«Laburbilduz, esan daiteke familia harreman-sarea dela, harreman sentimentalek definitua, eskuragarritasun eta dentsitate handiko harreman-sarea dela eta helburu indartsuko, bi zentzuetako norabideko, iraupen luzeko, intentsitate handiko eta maiztasun handiko harreman-sarea dela. Beraz, sare horretan sortzen diren harremanek berebiziko indarra (koalitatea) dute sare horren partaideen portaeran (baita hizkuntz portaeran ere, noski).»

6.3 JARRAIPEN-PROGRAMAREN HELBURUAK

Jarraipen-programak, beraz, oso kontutan izan behar ditu bikote-motak eta berauek hizkuntza transmititzeko dituzten bideen hurrenkerak.

Transmisio-bide bakoitzari jar dakiokkeen helburua zehazteko beste aldagai garrantzitsua haurren adina da. Izan ere, haurren errealtatea nola osatua dagoen aztertu dugunean, ikusi dugu haurren errealtatea 2-3 urte bitarte arte familiak osatzen duela eta adin-tarte horretan finkatzen dela neurri handi batean ama-hizkuntza. Era berean, haurrak 2-3 urte betetzen dituen garaitsu horretan erabakitzen da haurren eskolaratzea eta, beraz, orduan erabakitzen da haurren hizkuntzaren eskola bidezko jarraipena.

3 urtetik 16 urtera arte, berriz, haurra eskolatuta dago (ama-hizkuntza, dena delakoa, eta famili hizkuntza ere kasu gehienetan jadanik finkatuta daude) eta irakaskuntza bidezko hizkuntzaren lanketak (hizkuntz ikastereduek...) eta familiak eta eskolaz kanpoko iharduerak baldintzatzen dute haurren hizkuntz gaitasuna (elebitasun-mota...) eta erabilpena.

Aldagai hauek guztiak bildu nahian, hurrengo orriko taulan jarraipen-programaren helburuak laburtzen dira, bikote-mota, jarraipen-bideak eta haurren adina kontutan izanik.

Jarraipen-Programaren Helburuak



BIKOTE MOTA	HAURRAREN ADINA			
	0-2			3-16
EUSKALDUNAK	FAMILI HIZKUNTZA	AMA-HIZKUNTZA	EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA	Euskarazko irakaskuntza EUSKARAZKO ESPARRUAK FAMILIAZ ETA ESKOLAZ KANPO
MISTOAK	AMA-HIZKUNTZA ("euskara ere bai" behintzat)	(FAMILI HIZKUNTZA)	EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA	Euskarazko irakaskuntza EUSKARAZKO ESPARRUAK FAMILIAZ ETA ESKOLAZ KANPO
ERDALDUNAK	(AMA-HIZKUNTZA (euskara ere bai))	(FAMILI HIZKUNTZA)	EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA	Euskarazko irakaskuntza EUSKARAZKO ESPARRUAK FAMILIAZ ETA ESKOLAZ KANPO

* «()» ikurra duten helburuek bikoteko kide bat edo biak euskalduntzea eskatzen dute halaberrez gehienetan. Beste helburu guztiak betetzeko, nahikoa da bikotekideak helburu hori nahi izatea eta aukeratu ahal izatea (eskaintza izatea alegia).

6.4 ADIBIDE BAT

«Euskara bikote-hizkuntza izateko, edo bikotekide biek euskal elebidunak izan behar dute, edo bietako batek behintzat euskal elebiduna izan behar du eta beste bikotekideak elebidun hartzaileak duena baino gaitasun jasoagoa behar du, edo bestela biak elebidun orekatuak behar dute izan eta orduan hirugarren aldagai batek (harreman-sarearen ezaugarri ez-linguistikoek, jarrerak) aldekotasunez eragin beharko du bikote-hizkuntza euskara izan dadin. Beste kasu guztietan bikote-hizkuntza erdara izango litzateke ziurrenik»

Taula horretan jasotzen diren helburuak egikaritzeko, ordea, sentsibilizazio-arloa (familia bidezko jarraipena areagotzeko, eskola bidezkoa indartzeko eta familiaz eta eskolorduz kanpoko iharduerena suspertzeko) lantzeko egitasmo bat, bikotekideentzako eskolak ahalbidetuko litzukeen egitasmo bat eta familiaz eta eskolorduz kanpoko iharduerak euskalduntzeko egitasmo bat prestatu beharko lirateke.

Euskararen jarraipena areagotzeko egitasmo honek nazio-mailan ezartzeko plan bat behar luke izan. Plan honek, tokian tokiko egokitzapenak behar litzuke (helburuak, lehentasunak, bitartekoak...) bertako egoerara moldatzeko. Horretarako, hizkuntzaren jarraipen-bideen tokian tokiko (aplikatu nahi den esparru geografikoaren arabera) informazioa behar da. Informazio horrek zera adierazi behar luke:


- Familia bidezko hizkuntzaren jarraipenaren egoera (guraso euskaldunen eta mistoen kasuan).
- Irakaskuntzako hizkuntz ereduen ezarpenaren egoera.
- Eskolorduz kanpoko ihardueren hizkuntz egoera.


Informazio horren arabera, esparru geografiko bakoitzean (auzo, udalerrri, eskualde...) belaunaldiz belaunaldi euskararen jarraipena hobetzeko egitasmoak zein iharduera-esparrutan aplikatuak eta nori zuzenduak izan behar liratekeen erabakiko litzateke.

* **Adibideak** (oso modu eskematikoan)

X udalerrria: Demagun udalerrri honetan, oso euskalduna, bikote euskaldunen (gehienak) artean euskararen jarraipena ia erabatekoa dela, baina bikote mistoetan, berriz, galera handia dagoela. Irakaskuntzan, bestalde, euskal ereduak nagusi dira, baina eskolorduz kanpo antolatzen diren iharduerak nagusiki gaztelaniaz daude. Kasu honetan belaunaldiz belaunaldiko euskararen jarraipena hobetzeko saiakerak taulan azaltzen diren lehentasun-puntuetan garatu beharko lirateke.

Y udalerrria: Demagun beste udalerrri honetan, erdaldundua, bikote euskaldun eta mistoetan ere familia bidezko jarraipenak hutsuneak dituela, eredu euskaldunen ezarpena oraindik ez dela erabatekoa eta eskolorduz kanpoko iharduerak gaztelaniaz direla.





Euskararen jarraipena hobetzeko saio berri hauek behar luketen sentsibilizazio-lanaren ildo nagusiak «*Familia Programa. Sentsibilizazio arloa definitzeko orientabideak*» izenburupean Udaletako Euskara Teknikarien Sareak (UETS) egindako lanak jasotzen dituenak izan daitezke.

Lan honetan, 6.3. puntuari zehaztu berri ditugun helburuen arabera, sentsibilizazio-lanaren nondik norakoak jasotzen dira. Horretarako, elementu hauek garatu dira:

- **Aldeko faktoreak** (sentsibilizazio-lanak azpimarratu beharreko faktore nagusiak).
- **Hutsuneak / Arriskuak** (sentsibilizazio-lanak kontutan izan beharreko zenbait faktore, zaindu beharreko faktoreak).
- **Mezuak** (aurreko bi elementuen bidez osaturiko diskurtsoa zehaztuko luke ten esaldiak, esloganak...). Mezurik ez da sortu, lan hori bereziki sortzaileek (mezuak sortzen adituak direnek) egin behar dutela pentsatu delako.
- **Kanalak** (diskurtsoa, mezu batzuen bitartez subjektuengana iristeko bideak).
- **Zerbitzuak** (zenbait sentsibilizazio-lan burutzeko zerbitzu batzuk eskaintzea onuragarria, batzuetan beharrezkoa, dela baloratu da).

Besterik aipatzen ez denean, sentsibilizagaiak bikotekideak dira.

A) BIKOTE EUSKALDUNAK

A.1.- HAURRAK 0-2 URTE DITUENEAN

a) Famili hizkuntza / Ama-hizkuntza

Helburua: Euskara famili hizkuntza izatea (haurrak euskara ama-hizkuntza izanik).

Aldeko faktoreak:

1. Identitatea (Euskara GUREA da, GU euskarak egiten gaitu...).
2. Kalitatea (euskara aberatsa familian jasoz lortzen da...).
3. Eraginkortasuna (euskara jasotzeko biderik errazena da...).
4. Naturaltasuna (euskara jasotzeko erarik berezkoena da...).

Hutsuneak / Arriskuak / Zaindu beharrekoak:

1. Familiaren beraren erantzukizunari izkina egitea (euskara egoki transmititzeko erantzukizuna eskolari egotziz...).
2. Familia osoaren erantzukizunari izkina egitea (familiako euskara-erabilerak guraso-haur arteko komunikaziora mugatuz, neba-arrebak, aiton-amonak ahantziz...).
3. Bikotekideen arteko gaztelaniazko komunikazio-ohitura.

Mezuak:

Zehazturiko helburua abiapuntutzat hartuz eta aldeko faktoreak eta hutsuneak / arriskuak (diskurtsoa osatzeko ideiak) kontutan izanik, mezuak prestatzen adituak diren pertsonen zehaztuko lituzkete.

Kanalak:

1. Komunikabide orokorrak (ETB-1, ETB-2..., nazio-mailako irratiak, prentsa...).
2. Ingurune hurbileko komunikabideak (herri-aldizkariak, herrietako kronikak, herri-telebistak...).
3. Komunikazio pertsonalizatua (epaitegietatik haur jaio berrien zerrendak lor-

«Familia, beraz, hizkuntz jokaeraren definitzaile nagusietarikoa da. Hala ere, familia ez da egitura edo harreman-sare finkoa, bere sorrera-prozesua du eta, sorrera-prozesuak berak definituko du neurri batean geroago bere baitan burutuko den hizkuntz jarraipena»

«Hizkuntzaren familia bidezko jarraipena (haurraren ama-hizkuntza) ondorengoa sortu eta beronekin harremanak hasten diren unean hasten da gauzatzen eta, haurraren ama-hizkuntza eta famili hizkuntza, hizkuntza desberdinak izan daitezke»

tuz eta haurrak 0-2 urte bitartean dauzkanean eskutitz bidezko komunikazio-sistema bat prestatuz, gai hau landuko lukeen bideo bat prestatuz...).

4. Gaiari buruzko komunikazio-bide berezituak (gaian espezializatutako aldi-zkari bat, komunikazio iraunkorrerako sistema bat...).

Zerbitzuak:

1. Gurasoentzako eskola bereziak (oinarrizko alfabetatzea, hemengo idiosinkrasiari lotutako gaiak, haurrari lanak egiten laguntzeko eta eskolako prozesua jarraitu ahal izateko...).
2. Hitzaldiak, ikastaroak, unitate didaktiko antzeko bat... non mitologi gaiak, kantak, ipuinak eta abar landuko lirakeen.
3. Informazio- eta aholkularitza-zerbitzua.

b) Euskarazko irakaskuntza

Helburua: haurra euskarazko irakaskuntzan matrikulatzea.

Aldeko faktoreak:

1. Etxeko euskara lantzeko eta pertsona modura osatzeko bidea.
2. Edozein eginkizun burutzeko gaitasuna jasotzeko bidea.
3. Etorbizuneko bideek euskaldun «eskolatuak» eskatuko dituzte eta horiek eskola bidez osatzen dira.
4. Ziurrago, erosoago eta ingurune afektiboarekin bat eginez bizitzeko.

Hutsuneak / Arriskuak / Zaindu beharrekoak:

1. Pertsona osatzeko orduan eskolak duen garrantzia gutxiatea.
2. Euskara badaki eta, gauza inportanteetarako gaztelania behar duenez, gaztelaniaz eskolatzea.
3. Eskolak batez ere lehen urteetan hizkuntzaz jabetzeko duen garrantzia gutxiatea (euskaraz osatzea gerorako uzteak helburua zailtzen eta garestiagotzen duela ez jabetzea).

Mezuak:

Zehazturiko helburua abiapuntutzat harturik eta aldeko faktoreak eta hutsuneak / arriskuak (diskurtoa osatzeko ideiak) kontutan izanik, mezuak prestatzen dituzten pertsonak zehaztuko lituzkete.

Kanalak:

1. Komunikabide orokorrak (ETB-1, ETB-2..., nazio-mailako irratiak, prentsa...).
2. Ingurune hurbileko komunikabideak (herri-aldizkariak, herrietako kronikak, herri-telebistak...).
3. Komunikazio pertsonalizatua (Ikastetxeak / PATak / Udalak).
4. Gaiari buruzko komunikazio-bide berezituak (Eroski aldizkaria...).
5. Euskara-elkarteak (aurrematrikulazio-kanpainak).

Zerbitzuak:

1. Informazio- eta aholkularitza-zerbitzua.

A.2.- HAURRAK 3-16 URTE DITUENEAN

Helburua: Haurra familiaz eta eskolaz kanpoko euskarazko ihardueretan txertatzea.

Aldeko faktoreak:

1. Erabilera bidez hobetzen da ezagupena (esparru honek haurraren errealita-

tean betetzen dituen orduak...).

2. Haurraren atsegina. Ludikotasunaren eta hizkuntzaren arteko lotura. Identifikazio integrala (ez soilik eskolarekikoa).
3. Pertsona modura osatzeko heziketa ez-formalak duen garrantzia.
4. Sentimendu-hizkuntza ingurune afektiboko lagunekin.

Hutsuneak / Arriskuak / Zaindu beharrekoak:

1. Irakaskuntzaren garrantzia gainbaloratzea.
2. Kontsumo-gaietan hizkuntza aintzakotzat ez hartzea (ipuinak, bideoak...).
3. Euskara badakitenez, gaztelania ikasteko gunea dela pentsatzea.

Mezuak:

Zehazturiko helburua abiapuntutzat harturik eta aldeko faktoreak eta hutsuneak / arriskuak (diskurtsoa osatzeko ideiak) kontutan izanik, mezuak prestatzen adituak diren pertsonak zehaztuko lituzkete.

Kanalak:

1. Komunikabide orokorrak (ETB-1, ETB-2..., nazio-mailako irratiak, prentsa...).
2. Ingurune hurbileko komunikabideak (herri-aldizkariak, herrietako kronikak, herri-telebistak...).
3. Komunikazio pertsonalizatua (Ikastetxeak).
4. Gaiari buruzko komunikazio-bide berezituak (herrian euskarazko aisialdian egiten den eskaintza, Eroski aldizkaria...).

Zerbitzuak:

1. Informazio- eta aholkularitza-zerbitzua.

B) BIKOTE MISTOAK

B.1.- HAURRAK 0-2 URTE DITUENEAN

a) Ama-hizkuntza / Famili hizkuntza

Helburua: Haurraren ama-hizkuntza euskara ere izatea lehenik, euskara famili hizkuntza izatea bigarrenik.

Aldeko faktoreak:

1. Identitatea (Euskara GUREA da, GU euskarak egiten gaitu...).
2. Kalitatea (euskara aberatsa familian jasoz lortzen da...).
3. Eraginkortasuna (euskara jasotzeko biderik errazena da...).
4. Naturaltasuna (euskara jasotzeko erarik berezkoena da...).
5. Bideragarritasuna (kideetako batek ikasiz gero, euskara erraz bihur daiteke famili hizkuntza...).

Hutsuneak / Arriskuak / Zaindu beharrekoak:

1. Familiaren beraren erantzukizunari izkina egitea (euskara egoki transmititzeko erantzukizuna eskolari egotziz...).
2. Familia osoaren erantzukizunari izkina egitea (familiako euskara-erabilerak guraso-haur arteko komunikaziora mugatuz, neba-arrebak, aiton-amonak ahantziz...).
3. Bikotekideen arteko gaztelaniazko komunikazio-ohitura.
4. Bikotekide batek ikasteko asmorik ez badu ere, dakienak euskaraz eta ez dakienak erdaraz egitea haurra nahastea delako ustea (identifikazioak funtzionatzen duela...). Dakienak euskaraz egitea oso inportantea da euskara ere ama-hizkuntza izan dadin.

«*Bikote erdaldunek eta bikote mistoek beti erdara izango dute bikote-hizkuntza. Bikote euskaldunen artean, ordea, bikotekideek duten hizkuntz erraztasun erlatiboak, jarrerak eta bikoteak harreman-sare modura dituen ezaugarri ez-linguistikoak erabakiko dute bikote-hizkuntza*»

«**Famili hizkuntzak, ordea, haurraren ama-hizkuntzaren nolakotasuna (kalitatea, erraztasuna eta, beraz, erabilpena) baldintzatzen du eta famili hizkuntzaren definitzaile nagusia bikote-hizkuntza da eta bikote-hizkuntza bikotekideek elkar ezagutzen duten uneetan (adinetan) eta guneetan (harreman-sareetan) erabakitzen da**»

Mezuak:

Zehazturiko helburua abiapuntutzat harturik eta aldeko faktoreak eta hutsuneak / arriskuak (diskurtsoa osatzeko ideiak) kontutan izanik, mezuak prestatzen adituak diren pertsonen zehaztuko lituzkete.

Kanalak:

1. Komunikabide orokorrak (ETB-1, ETB-2..., nazio-mailako irratiak, prentsa...).
2. Ingurune hurbileko komunikabideak (herri-aldizkariak, herrietako kronikak, herri-telebistak...).
3. Komunikazio pertsonalizatua (epaitegietatik haur jaio berrien zerrendak lortuz eta haurrak 0-2 urte bitartean dauzkanean eskutitz bidezko komunikazio-sistema bat prestatuz, gai hau landuko lukeen bideo bat prestatuz...).
4. Gaiari buruzko komunikazio-bide berezituak (gaian espezializatutako aldi-zkari bat, komunikazio iraunkorrerako sistema bat...).

Zerbitzuak:

1. Euskara-eskolak.
2. Hitzaldiak, ikastaroak, unitate didaktiko antzeko bat... non mitologi gaiak, kantak, ipuinak eta abar landuko liratekeen (euskaraz dakien bikotekidearentzat).
3. Gurasoentzako eskola bereziak (oinarrizko alfabetatzea, hemengo idiosinkrasiari lotutako gaiak, haurrari lanak egiten laguntzeko eta eskolako prozesua jarraitu ahal izateko...).
4. Informazio eta aholkularitza-zerbitzua.

b) Euskarazko irakaskuntza

(ikus bikote euskaldunentzat esandakoa)

B.2.- HAURRAK 3-16 URTE DITUENEAN

(ikus bikote euskaldunentzat esandakoa)

C) BIKOTE ERDALDUNAK

C.1.- HAURRAK 0-2 URTE DITUENEAN

a) Euskarazko irakaskuntza

Helburua: haurra euskarazko irakaskuntzan matrikulatzea.

Aldeko faktoreak:

1. Identitatea. BERTAKO hizkuntza da.
2. Edozein eginkizun burutzeko gaitasuna jasotzeko bidea.
3. Etorkizuneko bideek pertsona elebidunak eskatuko dituzte.
4. Ama-hizkuntza zeinahi delarik ere, euskarazko irakaskuntza da pertsona elebidunak osatzeko bidea.

Hutsuneak / Arriskuak / Zaindu beharrekoak:

1. Euskarazko irakaskuntzak ez ote duen kaltetuko gartzelaniazko maila jasoaren ezagupena.
2. Euskarazko irakaskuntza eskola-errendimenduarentzat oztopo ez ote den izango.
3. Eskolak batez ere lehen urteetan hizkuntzaz jabetzeko duen garrantzia gutxietea (euskaraz osatzea gerorako uzteak helburua zaildu eta garestiagotzen duela ez jabetzea).
4. Gurasoek ezingo ote dioten haurrari bere lanetan lagundu.

Mezuak:

Zehazturiko helburua abiapuntutzat harturik eta aldeko faktoreak eta hutsuneak / arriskuak (diskurtsoa osatzeko ideiak) kontutan izanik, mezuak prestatzen adituak diren pertsonen zehaztuko lituzkete.

Kanalak:

1. Komunikabide orokorrak (ETB-2..., nazio-mailako erdal irratiak, prentsa...).
2. Ingurune hurbileko komunikabideak (erdarazko herri-aldizkariak, herrietako kronikak, herri-telebistak...).
3. Komunikazio pertsonalizatua (Ikastetxeak / PATak / Udalak).
4. Gaiari buruzko komunikazio-bide berezituak (Eroski aldizkaria...).
5. Euskara-elkartek (aurrematrikulazio-kanpainak).

Zerbitzuak:

1. Informazio- eta aholkularitza-zerbitzua.

b) Ama-hizkuntza / Famili hizkuntza

Helburua: Haurren ama-hizkuntza euskara ere izatea lehenik, euskara famili hizkuntza izatea bigarrenik.

Aldeko faktoreak:

1. Identitatea (Euskara GUREA da, GU euskarak egiten gaitu...).
2. Kalitatea (euskara aberatsa familian jasoz lortzen da...).
3. Eraginkortasuna (euskara jasotzeko biderik errazena da...).
4. Naturaltasuna (euskara jasotzeko erarik berezkoena da...).

Hutsuneak / Arriskuak / Zaindu beharrekoak:

1. Familiaren beraren erantzukizunari izkina egitea (euskara transmititzeko erantzukizuna eskolari egotziz...).
2. Bideragarritasunik ez ikustea.
3. Bikotekide batek ikasteko asmorik ez badu, ikasi nahi duenak euskaraz eta ez dakienak erdaraz egitea haurra nahastea delako ustea (identifikazioak funtzionatzen duela...). Ikasten ari denak euskaraz egitea oso inportantea da euskara ere ama-hizkuntza izan dadin.
4. Zuzentasuna. Eredua ona izan ezean ez egitea hobe delako ustea.

Mezuak:

Zehazturiko helburua abiapuntutzat harturik eta aldeko faktoreak eta hutsuneak / arriskuak (diskurtsoa osatzeko ideiak) kontutan izanik, mezuak prestatzen adituak diren pertsonen zehaztuko lituzkete.

Kanalak:

1. Komunikabide orokorrak (ETB-1, ETB-2..., nazio-mailako irratiak, prentsa...).
2. Ingurune hurbileko komunikabideak (herri-aldizkariak, herrietako kronikak, herri-telebistak...).
3. Komunikazio pertsonalizatua (epaitegietatik haur jaino berrien zerrendak lortuz eta haurrak 0-2 urte bitartean dauzkanean eskutitz bidezko komunikazio-sistema bat prestatuz, gai hau landuko lukeen bideo bat prestatuz...).
4. Gaiari buruzko komunikazio-bide berezituak (gaian espezializatutako aldizkari bat, komunikazio iraunkorrerako sistema bat...).

Zerbitzuak:

1. Euskarazko eskolak.

«Euskararen jarraipena areagotzeko egitasmo honek nazio-mailan ezartzeko plan bat behar luke izan. Plan honek, tokian tokiko egokitzapenak behar lituzke (helburuak, lehentasunak, bitartekoak...) bertako egoerara moldatzeko»

«Hizkuntzaren jarraipen-bideen tokian tokiko (aplikatu nahi den esparru geografikoaren arabera) informazioa behar da. Informazio horrek zera adierazi behar luke: -Familia bidezko hizkuntzaren jarraipenaren egoera (guraso euskaldunen eta mistoen kasuan). - Irakaskuntzako hizkuntz ereduaren ezarpenaren egoera. -Eskolorduz kanpoko ihardueren hizkuntz egoera»

2. Informazio- eta aholkularitza-zerbitzua.

C.2.- HAURRAK 3-16 URTE DITUENEAN

(ikus bikote euskaldunentzat esandakoa)

6.5 LABURPEN GISARA

Txostenean zehar garatutako ataletan jasotakoa birgogoratu, euskararen jarraipena hobetzeko saioek ahalik eta emaitza oparoenak izan ditzaten, ondoren zehazten direnak kontutan izatea interesgarria izan daiteke.

- A) Euskara normalizatzeko, euskararen familia bidezko jarraipena normalizatu behar da.
- B) Euskararen **plangintzan**, familia bidezko jarraipenak **lehentasuna du**.
- C) Euskararen **politikan**, familia bidezko jarraipenari **lehentasuna eman behar zaio**.
- D) Euskararen familia bidezko jarraipena **hobetu egin da** azken hogeitau urte honetan.
- E) Euskararen jarraipena **hobetzeko saio berriak egin behar dira**.
- F) Saio berriak **integralak** izan behar dira:
 - F1: Motibazioa landuko dutenak.
 - F2: Ezagutza landuko dutenak.
 - F3: Erabilera landuko dutenak.
- G) Saio berriak **sistematikoak eta koordinatuak** izan behar dira:
 - G1: Iraupenean (iraunkorrak).
 - G2: Hedapenean (beharrezkoa den herri guztietan).
- H) Saio berriak **irizpide- eta ekintza-batasunaz burutu** behar dira
- I) Saio berriek **hiru jarraipen-bide** landu behar dituzte:
 - I1: Familia bidezkoa.
 - I2: Eskola bidezkoa.
 - I3: Familiaz eta eskolaz kanpoko.
- J) Saio berriak **bi eratakoak** izan behar dira:
 - J1: Sendabidezkoak (lehen-hizkuntzaren galera etetera zuzenduak).
 - J2: Normaltasunezkoak (lehen-hizkuntzaren irabazia ziurtatzera zuzenduak).
- K) Normaltasunezko saioek **bi erabaki-gunetan** jarri behar dute indarra:
 - K1: Gazteetan (bikote-hizkuntza finkatzeari begira).
 - K2: Osatu berriko familietan (haurraren ama-hizkuntza ziurtatzeari begira).

7.- BIBLIOGRAFIA

- AEK. 1993. *Familiak euskalduntzeko didaktika proposamena*, ELE aldizkaria, 13. zkia.
- 1993. *Familien euskalduntzea. Eranskina*, ELE aldizkaria, 13. zkia.
- (Hernani). 1993. *Familien euskalduntzea. Esperientzian oinarrituriko gogoetak*, ELE aldizkaria, 13. zkia.
- (Orereta). 1993. *Transmisio kanpainaren esperientzia Oreretaldian*, ELE aldizkaria,

13. zkia.

AGOTE Imanol. 1993. *Euskal famili transmisioaren programa zirriborria*, txosten fotokopiatua, HPIN.

-1993. *Erdararen erabileratik euskararen erabilerara: hizkuntz jokabidearen faktore orokorrak*, JAZTEN aldizkaria, 9. zkia., AED.

AIZPURUA Xabier. 1992. *Euskal Autonomi Elkarte egoera soziolinguistikoaren azalpen orokorra*, BAT aldizkaria, 7/8. zkia., EKB.

ARRUTI Iñaki. 1989. *Eskolaurrean haurrak dituzten gurasoentzako euskara klaseak*, txosten fotokopiatua, Lasarte-Oriako Udala.

- 1989. *Euskararen familia bidezko transmisio programa*, txosten fotokopiatua, Lasarte-Oriako Udala.

- 1992. *Udaleko hizkuntz planifikazioa prestatzeko metodologi proposamena*, Jardunaldiak soziolinguistikaz, Bilboko Udala.

- 1994. *Hizkuntza plangintzarako eredu bat eta adibide baten azterketa: transmisio-kanpaina*, EKBerriak aldizkaria, 6. zkia., EKB.

- 1994. *Hizkuntza normalizazioa, hizkuntza plangintza eta hizkuntza politika*, EHU, Hizkuntza Plangintzarako Diplomatura.

EKB. 1992. *Transmisio kanpainak eta gurasoak euskalduntzeko kanpainak*, txosten fotokopiatua, EKB.

- 1993. *Transmisio kanpainen balantzeak 1990-91 / 1991-92*, txosten fotokopiatua.

EUSKO JAURLARITZA. 1991. *Eskola hiztun bila, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila*, Euskara Zerbitzua.

- 1989. *Soziolinguistikazko mapa, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia*.

- 1994. *Euskara 81-91*, EUSTAT.

- 1995. *Euskararen jarraipena*, Kultura Saila.

FISHMAN J.A. 1990. *Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan*, Euskal Eskola Publikoaren lehen kongresua, Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

- 1991. *Reversing language shift*, Multilingual Matters.

GALDOS Imanol. 1992. *Gaztedia eta astialdia euskalduntzeko egitasmorako proposamena*, txosten fotokopiatua.

MILROY L. 1987. *Language and social networks*, Basil Blackwell.

MOLINA J.L. 1994. *Análisi de xarxes sociais y antropología*, txosten fotokopiatua.

REQUENA F. 1991. *Redes sociales y mercados de trabajo*, CIS.

SÁNCHEZ CARRIÓN J.M. 1987. *Un futuro para nuestro pasado*.

SIADeco. 1994. *Familia bidezko hizkuntza transmisioaren azterketa. Lehen txostena. Siadeco (1978-91) eta HPINko (1991) ikerketetan bildutako datuen arabera*, txosten fotokopiatua.

- 1994. *Familia bidezko hizkuntza transmisioaren azterketa. Bigarren txostena. 1991ko zentsuko datuen arabera*, txosten fotokopiatua.

UETS (Udaletako Euskara Teknikarien Sarea). 1995. *Famili programa. Sentsibilizazio-arloa definitzeko orientabideak*, txosten fotokopiatua.

«Informazio horren arabera, esparru geografiko bakoitzean (auzo, udalerrri, eskualde...) belaunaldiz belaunaldi euskararen jarraipena hobetzeko egitasmoak zein iharduera-esparrutan aplikatuak eta nori zuzenduak izan behar liratekeen erabakiko litzateke»